

ASTIGARRAGA 2018

37. aldizkaria, 2018ko uztailaren 12a



**Ekinez ekin,
herri baratzea sortuz**

AURKIBIDEA

HISTORIA



Astigarragako dantza taldeak (2)	38
Lazunenea baserria eta karobiak	42

NATURA



Baratze komunitarioak	4
Nekazal lurren okupazio moduak eta jabegoa	8
Suge eta sugedorriak	18

HERRIKOIAK



Emakumeei egindako omenaldia	12
Xabina eta Ixabel, urteek apurtu ez duten...	22
Mundarroko pilotarien urte oparoa	21
Gorka Sagués arbitroa	36
Herriak batu zituen bidaia	44
Herri bizitzaz	50

ELKARTEAK



Astiarako Feministak	16
Gazte Asanblada	24
Herri Eskolaren egoera	30
Erabakitze eskubidearen aldeko giza katea	29
Bufanda jantzita	34

KULTURA



Astigar dantzariak Martin Zalakain ikuskizun...	3
Bertsolarien ahoz, liburuaren aurkezpena	10
JAIK 2018	25
Herri Eskolako txikiak kontu kontari	40
Astigarragako sustraiak	46
Mikel Lertxundi eskultore emankorra	48

BIOGRAFIK



Julian Arzamendi Otaegi, herriko sendagilea	13
En recuerdo de Amaia Imaz Almandoz	32



Argitaratzailea: **ASTIGAR ELKARTEA**

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galartza, ROXARITO Zabalegi eta MIEL JOXE Astarbe

Kolaboratzaileak

Isabel Almandoz, Ramon Santxez, Lourdes Odriozola, Andoni Arzallus, Ion Garin, Urkiri Salaberria, Gaizka Irigoien, Arantxa Arzamendi, Urtzi Leonet, Garbiñe San Miguel, Xabier Urdangarin, Elena Ibañez, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe

Maketazio lanak:

Antton Arka

Babesle eta laguntzaileak

TXIMELA, KUTXABANK eta ASTIGARRAGAKO UDALA

Lege-gordailua: SS-0058/04

Inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa

Azaleko argazkia: Baratze komunitarioak, Antton Arka

ASTIGARRAIBO DANTZARITIA

MARTIN ZALAKAIN IKUSKIZUNEAN

Juan Antonio Urbeltzen azken ikuskizun berria da Martin Zalakain. Pio Barojaren “Zalakain abenturazalea” eleberria oinarri hartuz, antzerkia eta dantza uztartu nahi izan ditu. Harkaitz Cano idazleak sortu du antzezlanerako gidoia eta On Piores azalean Ander Lipus aktorea jarri du.



Argazkia: Iñaki Zugasti

Astigar taldeko gaztetxoekin batera Donostiako Argia, Añorgako Arkaitz, Debako Gure-Kai, Eibarko Kezka, Elgoibarko Haritz, Iruñeako Duguna, Biarritzeko Maritzuli eta Portugaleteko Elai-Alaiko dantzariak aritzen dira. Dantza, jolasa musika eta abestien bidez, Martin txikiaren abenturetatik hasi eta helduaroko bizipenetara garamatza ikuskizun honek.



MENDIOLA baserria

Txoritokieta bidea

Hilerria

BARATZE KOMUNITARIOAK

1980ko hamarkadatik aurrera, herri-baratzeek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, eta elikadura-burujabetzari, kontsumitzen ditugun produktuen kalitateari eta enpleguaren sorkuntzari, bizi-kalitatearen hobekuntzari, ingurumen-hezkuntzari, gizarte-harremanei, gizarte-eraldaketari zein hiri-berroneratzeari lotutako ezaugarri berriak hartu dituzte.

IZASKUN Txintxurreta

Mendiola ondoko lursailaren aldeko apustua

Gero eta udalerri gehiagok eskaintzen dute herri-baratzeak erabiltzeko aukera eta herritarrek gero eta neurri handiagoan eskatzen dituzte herri-baratzeak. Horregatik, Astigarragak 2015ean herri baratzeak eskaintzeko apustua egin zuen.

Erriberako lursail emankorrez gain, badira oraindik ere Astigarragan lursail egokiak bai nekazaritzarako, bai abeltzaintzarako ere. Aukerak aztertuta, egungo kokapenaren (Mendiola baserriaren eta hilerriaren ondokoa) aldeko apustua egin zuen orduko Gobernu taldeak.

Arto soroa zena baratzetarako prestatu beharra zegoen; egin ziren lanak, besteak beste, zegoen lurra goxatu eta ongarritu. Lursailak antolatu, itxitura prestatu, bidexkaz hornitu ea.

Guztira 40 lur zatitxo prestu ziren, gerora baratze eder, polit eta oparo bilakatu zirenak. Herriko behar eta gizarte ezaugarriei erreparatuta modu honetan antolatu ziren lursailak:

- 2 baratze desgaituentzat.
- 2 baratze Baratz Elkartearentzat.
- 10 baratze langabetuentzat.
- 6 baratze gazteentzat (35 urte baina gutxiagoko herritarrek).
- 8 baratze jubilatuentzat (65 urte baina gehiagoko herritarrentzat)
- 12 baratze gainerakoentzat.

Eremuaren gainontzeko azalera erabilera komunitariorako gorde zen (zerbitzuen eraikina, bideak, ureztatzeko putzuak, konposta egiteko guneak...).

Lanabesak gordetzeko etxola bertako materialekin egiteko apustua egin zen, hala nola, lastoa eta buztina, eta jarrita dituen atea eta leihoak ere berrerabilitakoak dira.



Argazkiak: *Xalima*

Lizentziak esleitzeko deialdirako oinarriak

2015eko maiatzaren 22an “LIZENTZIAK ESLEITZEKO DEIALDIRAKO OINARRIAK” argitaratu ziren.

Baratzeak erabiltzeko lizentziak urtebetarako eman ziren, gehienez 4 urteraino luzagarriak, beraz esleipendunek 2019ko irailera arteko epea dute baratzeak landatu eta ereiteko.

Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoak dira:

- Fidantza bat, 50 €-koa. Fidantza itzuliko da baratzearen erabilera bukatzen denean eta baratzea txukun eta beste erabiltzaile batek erabiltzeko moduan badago.
- Urteko kuota – Baratzea erabiltzeagatik: 36 € (3 €/hil)

Nekazaritza ekologikoan oinarrituta

Baratzeak erabiltzeko irizpidea nekazaritza ekologikoan oinarrituta egotea izan zen, baina egia da ez dela bide bakarra, izan ere, badira beste batzuk ere. Helburua, lurra zaindu eta aberastea da, eta batez ere, ohiko nekazaritza industrial eta intentsibotik urruntzea.

Egun gero eta gehiago hitz egiten da agroekologiaz, nekazaritza biodinamikoaz eta baita nekazaritza erregeneratiboaz edo birsortzaileaz ere.

Erabiltzaileen laguntzarako Udalak urtero aholkularitza zerbitzua eskaintzen du, erabiltzaileek izan ditzaketen zalantza, kezka edota galderei erantzuten diena. Urteko 3-4 saio izaten dira eta aholkuak eta laguntza eskaintzeaz gain zenbait tailer antolatzen dira. Aurtengoak eta epe laburrera izango direnak:

- Ekainaren 22an Ilargi negutegia ulertzen

- Irailaren 19an Nola landu neguko baratzea?

Tailerretara edozein herritar gerturatu daiteke, interesa edota ikasteko gogoia duen pertsona oro.

Lurzorua funtzio naturalei eustea

Helburu nagusiak lurzorua funtzio naturalei eustea, ingurumena neurri handiagoan ezagutu eta errespetatzeko aukera bultzatzea eta elikadurara osasungarria eta ohitura-aldaketa osasungarriagoak sustatzea izan baziren eta diren arren, ezin ahaztuko dugu **herri baratzeen helburua badela komunitatearen ideia sendotzea, elkarbizitza eta elkartasuna sustatzea eta belaunaldien arteko harremanak eta elkartruketa sustatzea.**

Azken hau nabarmena da, izan ere, baratzeak lantzen, txukuntzen eta ereiten ari diren pertsona helduen artean oso maiz ikusi daitezke gaztetxoek laguntzen eta landare zein haziei so, etorriko den kimu berriaren zain.



Argazkiak: *Xalima*

ANA Arka

“Ezagutza handirik ez banuen ere, jendea laguntzeko prest topatu dut beti baratze-komunitatean”

Baratzean aritzeko ilusioa eta gogoia betidanik izan ditut, horregatik baratzea egokitu zitzaidanean poz handia hartu nuen. Giro aberats honetan, ikaste iraunkor, harremanak konpartitzeko txoko eta esperientziak elkarrekin trukatzeko gune bihurtzen da baratzea. Jardue-
ra hau egitean, kontuan hartu behar dugu zenbat lan egin behar den produktu freskoak dastatu ahal izateko eta gure bizitzan duten balioaz eta garrantziaz konturatzeko.



BEATRIZ Ibarburu

“Lau urteko lagapena gutxi iruditzen zait, lurra oso gogorra hartu genuen eta orain gozatzen ari denean, utzi egin beharko dugu”

Nire aitak beti egin izan zuen baratza eta haren oroimenez animatu nintzan. Lekua zoragarria da baratzea egiteko eta udalak antolatu duen bezala primeran moldatzen gara. Ezer ez dakigunontzako Baratze Elkarteko Juantxo eta Periko dauzkagu. Beti prest laguntzeko eta aholkuak emateko. Baratzea zaindu eta goxatu arren, beste faktore batzuek ere eragin handia dute emaitzak lortzerako garaian. Eguraldi, izurriteak, ilargia ... eta hauek ez daude gure esku. Oso pozik nago aukera honekin.

MONTSE Hernandez eta OLATZ Soto

“Udal baratzeak martxan jartzeko ideia oso ona iruditu zitzaigun duela ia hiru urte.”

Baratze hauen inguruan adin guztietako astigartarrak gaude eta guztion artean baratzeei buruz ezagupenak amankomunean jartzen ditugu. Gauza asko ikasi ditugu; esaterako, zein barazki jartzen diren neguan eta zein udan. Orain buru-belarri gabilta tomate landareekin, ea aurten tomate onak lortzen ditugun! Dena den, lau urtetarako eskumena daukagu eta horrek kriston pena ematen digu, urtebete bakarrik geratzen zaigulako. Gure ustez, udalak epe hori luzatzeko aukera aztertu beharko luke. Guretzat oso esperientzia ona izaten ari da.



SONIA Flores

“ Mimar la tierra, las plantas, sufrir con las plagas, aprender a combatirlas de forma ecológica...”

La alternativa que nos brindó el Ayuntamiento, hace ahora tres años, de poder trabajar unas pequeñas parcelas denominadas Huertos Municipales, está resultando una experiencia fantástica y enriquecedora. Es cierto que hay que trabajar para obtener resultados. Mimar la tierra, las plantas, sufrir con las plagas, aprender a combatirlas de forma ecológica y esperar llevar nuestros productos a la mesa y degustarlos, con doble sabor, el de la satisfacción del resultado de tu trabajo y el de los productos ecológicos, limpios y sabrosos. ■

Agroaldeak eta baratze sozial edo komunitarioak, luraren jabe-
go moduarekin eta lurak lortzeko zailtasunak gainditzeko sortu diren
ekimenekin loturiko lege irudi eta “fenomenoak” dira.

Bi eredu hauek Astigarragan aurkitu ditzakegu, Agroaldea Larraburun
(Txoritokieta inguruan, izen bereko baserriaren ondoan) eta baratze sozial,
aisialdi baratze edo baratze komunitarioak, hilerri edo kanposantuaren ondoan.

Gainera, azken egun edo asteetan Behemendik (Donostialdeako Landa Garapenerako
Erakunde Publikoa) bultzatuta, Larraburun beste agroaldea bat sortzekotan daudela
adierazi dute, adibidez, Kronika aldizkariak argitaratu berri duen bezela.



Zer dira eta zertan oinarritzen dira agroaldeak?

Agroalde bat, nekazal erabilpena emateko jabe-
tza publikoko poligono edo lursaila da, komunak
diren zerbitzu eta azpiegiturak dituen: argi in-
darra, ura, bideak... kasu batzuetan negutegiak
berotzeko baliabideren bat, esaterako biogasa
etab. Gipuzkoan ez dira batere arraroak horrelako
poligonoak, beste herrietan ere ezagunak dira eta.
Adibidez: San Markoseko agroaldea Donostian,
Asteasun, Lezon, Irunen, Bergaran eta, esan beza-
la, Astigarragan.

Kantauriar Euskal Herrian, Gipuzkoa eta Biz-
kaian, batez ere, jabego publikoko lursailak oso

mugatuak dira, gehiengo jabego pribatukoa den
heinean. Honek dakar luraren eskaintza oso mu-
rritza izatea, prezioak oso altuak izatea eta gehie-
netan nekazaritzarako desegokiak edo behintzat
egokiak ez izatea.

Agroaldeak, nolabait, nekazaritzako profesona-
lei zuzendutako lursailak dira, errenta merke edo
jasangarri baten truke uzten direnak. Agroalde
bezala lurak eta erlazionatutako azpiegitura guz-
tiak ulertuz.

Nori zuzendutakoak dira lursail hauek?

Helburua lehen aldiz lurrak lortu nahi eta ezinean daudenei bidea zabaltzea da edo lurrak galdu dituzten profesionalei beraien egoera bideratzen laguntzea. Beste batzuetan nekazal lurrak babes-teko ere sortu litezke, nolabaiteko lege araudi baten menpean.

Modu desberdinetako ekoizpenak aurkitu ditza-kegu, hala nola, loreak, barazkiak, landareak... bai lurrean edota "hidroponia" (lurretik kanpoko sustrato berezi batzuetan ematen den ekoizpen sistema) bitartez, eta betiere negutegien barruan,



ekoizpenak urte osoan zehar bermatzeko asmoz. Negutegiak berotzeko, energia iturri desberdinak erabiltzen dira (gas naturala, hondakin solidoen bitartez lortutako biogasa bitartez etab).

Gipuzkoako erakunde publikoek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Landa Garapenerako erakundeek (Astigarragan Behemendik) eta erakunde hauen baitan udalek epe luzera begira gauzatutako apostu bat egin dute agroaldeekin, lursailak berreskuratu, babestu eta ekoizleei baldintza egokietan lan egiteko aukera emanaz.

Azken urteen, barazkien kontsumoa asko igo da eta behar honi erantzuna eman ahal izateko eta nekazarien lurrak lortzeko zailtasunari, lehen sektorean lan postuak sortzeko zailtasunari, erantzuna emateko aukeratako bat dira agroaldeak.

Agroaldeetan ekoizpen lokala bultzatzen da, kalitatezko produktuak, pestizida eta kimikoen erabilera arduratsuarekin. Kasu batzuetan agroaldeak ekoizpen ekologikoan oinarritzen dira.

Baratze komunitario, aisialdirako baratze edo baratze sozialek, berriz, beste ikuspuntu bat dute. Kasu hontan baratzeak lur publiko, pribatu, utzi edo okupatuetan gauzatzen dira.

Gure kasuan Astigarragako kanposantuaren ondoan kokatuta daude, eta udalak ahalbideturiko lur eta azpiegituren babesean sorturikoak dira. Aire librean kalitatezko elikagaiak sortu, autogestioa landu, lur eremu batzuei beste erabilpenak eman eta erlazioak sendotzeko topaguneak sortzeko balio dute. Aisialdirako ordua betetzeak ere badu berebiziko garrantzia gizartearen zati baten zatat (erretiratuak, langabetuak...)

Baratze hauek gizon-emakumeak, gazte, heldu edo nagusiak, kaletarrak... elkartzeko gunek bilakatzen dira.



Urte askotan jasan dugun krisiaren ondorioz, baratzeak lantzeko grina erabat sendotu da, baina ez horregatik bakarrik. Baratze hauek bide eta aukera egokia dira kalitatezko produktuak kontsumitzeko beharrari erantzuteko, kutsadura eta hondakinak murrizteko, bakoitzak bere proiektutxo aurrera eramateko ilusioa izateko eta kasu batzuetan baita bakardadeari, estresari eta behar psikologikoei irtenbidea emateko ere.

Esfortzu handia eta konpromiso garrantzitsua eskatzen dute baina gogobetetze pertsonala asetzeko giltza indartsua ere badira. Ez genuke ahaztu behar baratze hauek luraren eta bere aprobe-txamenduaren inguruan izan dezaketen erabilera didaktikoa ere, gero eta hiritar edo urbanitago bihurtzen ari den inguru batean.

Balio handiko bitarteko egoki eta merkeak dira, dudarik gabe!

Gaizka Irigoien Goikoetxea

BERTSOLARIEN AHOZ

Luzia Alberro historialariak aldaketa sozialak
aztertu ditu bertsoetatik abiatuta



Bertso-paperak
modernizazio
prozesuaren
ikerketarako
oinarri



Luzia Alberro Goikoetxea ergobitarra oso gaztetatik izan genuen Astigarraga aldizkariko lantaldeko kide. Gaztetatik izan du gizartearekin, historiarekin eta gure kulturarekin zerikusia duten gaien inguruko jakin-mina, eta ordutik bide naturala egin du gustuko gai horien inguruan lan oparoa osatu arte. Aurkezpenean bertan aitortu zuenez, aztergai izan dituenak ez zituen aztergai izango jaio eta hazi zen inguruan hazi ez balitz.

Luzia Alberro Historian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta unibertsitate horrek Bilbon duen egoitzan da gaur egun irakasle. 2015ean doktore tesia defendatu zuen eta Euskal Herriko Unibertsitateak berriki argitaratu dio tesi horretan oinarritutako lana, honako izenburupean: 'Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak Gipuzkoan, 1830-1936'.

Lan horren aurkezpena Astigarragako Kultur Etxean egin zuen familia, lagun eta herritarren aurrean.

Luziak berak hasieratik azaldu zuenez, lau gai nagusi landu zituen aurkezpenean: bertsolarien esanak historiarako garrantzitsuak direla baieztatzen, bertsolariak oro har herritarren izenean aritu zirela esan daitekeela adierazi zuen, liburuan agertzen diren sei bertsolarien inguruan aritu zen eta, bukatzeko, liburuan agertzen diren Astigarragaren aipamenak nabarmendu zituen.

Egileak berak aitortu izan duenez, liburuaren ondorio nagusietako bat honela laburbil daiteke: "Bertsolariek herri xeheari modernizazio prozesua 'ulertzen' lagundu zioten".

Lau ataletan antolatutako aurkezpenean Agin Laburu eta Maialen Lujanbio bertsolariak izan zituen lagun, atal horietako bakoitzaren ondoren landutakoaren inguruan aritu baitziren bertsotan.

Ekar ditzagun paperera aurkezpenean zehar bertsolariek kantatutako alerik bikainenak, atalez atal.

1.- BERTSOLARITZA ETA HISTORIA (XIX. mende amaiera-XX. mende hasiera)

Bertsoak inoiz ez dira izan
goren mailara jasoak
Mozkorti eta alprojak omen
gisa hortako kasoak
haiek esaten zituzten denak
ez ziran eta gozoak
horra bertso ofizialaren
lekuko deserosoak
Maialen

Hori esateko zein izango da
gaur zu bezain aproposa
baino arrazoi hori nahi nuke
nere hitz hauekin osa
txikia mutu dagoenean
da haundiaren pagotxa
bertsolaria beti izan da
galtzailearen ahotsa.
Agin

2.- BERTSOLARIAK NOREN AHOTS ZIREN?

Baziran edo ez ziran aibala aibala galdera estua eta erantzun zabala orain ere orduko enborren ezpala ze orain ere sarri entzuten det hala herrian parte txiki bat soilik gerala	Eta nola edozein ez zan bertsolari jendetza zegonean hoiek saltzen ari ama bakarra edo Kubako gerrari jende denak ikasi ta sinistu adi edo bertsolariai edo apaizari
Agin	Maialen

3.- DENAK BERTSOLARI, BAINA EZBERDIN

Hau da hau pena Joxe Manuel gaudela hain apartian hau da hau pena ia mende bat dala gure bitartian zu hil zinan eta larogei eta ia bigarrenko urtian holako jeniorik ez da Kantabriako partian	Bilintzek maitasunen bertso sail mardula nik holakorik ez det kantatzen sekula sudur horri ez diot egin bihar burla uste det antza hortan bakarrik degula
Maialen (Txirritari)	Agin (Bilintxi)

4.- ASTIGARRAGA LIBURUAN (eta Ergobia aurkezpenean)

Luziak liburuan Astigarraga noiz eta nola aipatzen den azaldu zuen, baina amaierarako utzi zuen Ergobiaren aipamena, argazki koloredun eta guzti. Bertaratutakoek barre egin zuten, kolorezko argazki eder bakarra izan baitzen hori.

Antzematen da zein dan gaur ergobiarra zeinek jo dun txalo ta zeinek egin parra argazkia ere da zabal ta earra koloretan dagoen argazki bakarra	Karretera onduan herri bat bikaina orain hartu duena ziudade tamaina eta Astiarra zer aizu alajaina bere famak hartua herriari gaina
Agin	Maialen



5.- AURKEZPENEN BUKAERAKO BERTSOAK (puntuka)

Baina eman behar zaio honi bukaera egondu gera bapo begira atzera aldizkari batena lehenengo galdera ta gero liburu bat mamitsua bera	Letu behar al dezu hasi ta bukatu oso mardula danik ezin da ukatu igual erdibana letu ta gero trukatu erreminta ona norbait nahi bada urkatu	Ni nago hori letzen lehenguan hasia ta egite al dizu zerbaitek grazia badu zer ikusia zorionak Luzia nere partetik ere ondo merezia.	Holako lana ez da ikusten askotan gainera ipintzen du mundu bat bertsotan holakuak baleude hemengo auzotan gure burua degu guk liburu hortan
<u>Agin-Maialen</u>	<u>Maialen-Agin</u>	<u>Maialen-Agin</u>	<u>Agin-Maialen</u>

Astigarragako EMAKUMEEI EGINDAKO OMENALDIA

Emakumeen nazioarteko eguna ospatuz, aurten ere zenbait ekitaldi izan ditugu gure herrian. Horieta bat Gaztelekuak antolatu duen herritarrek proposatutako emakumeak omentzeko ekitaldia izan da.

Gaztelekuko lantaldekoak diren Olatz eta Idurreri zuzendu gatzazkie, ekitaldi horren berri izan nahian eta ideia hori nondik datorren jakiteko.



Omendutakoak: Luisa Berrotaran, Julene Albisu, Maria Jesus Bastarrika, Ana Royo, Lourdes Oyarzabal, Laura Mayo, Esperanza Ramirez, Isabel Otero, Belen Olaziregi, Inmaculada Román eta Idoia Sagarzazu

• Nola bururatu zitzaizuen martxoaren 10ean egindako omenaldi hau egitea?

Gazte lokalean egindako barne lana izan da, bilera batetik ateratako ideia. Bertan pentsatu zen herriko edozein emakumeren ibilbide pertsonala omentzea zela helburua. Ez zuela zertan famatua izan, bakoitzarentzat duen garrantzia ikusaraztea baizik. Ideia horretatik abiatuz hasi ginen lanean. Udaleko Berdintasun Saileko bilkura batean plazaratu genuen gure ideia eta bertaratutakoen oniritzia jaso zuen.

• Nola zabaldu zenuten herritarren artean egin nahi zenutenaren berri?

Bilera horren ondoren kale hezitzaileok herritarren-gana zabalduko zen eskutitza prestatu genuen, baita kalean jartzeko kartela ere, eta komunikabideetara zabaldu genuen deialdia. Modu horretan, omenaldia merezi eta besteek jakitea merezi duela uste duenari aukera ematen zitzaion parte hartzeko, eta txarteltxo batean datuak jarri eta kutxa batzuetan jaso genituen.



• Herritarrek egindako proposamen asko bildu al ziren?

Guztira 11 proposamen bildu ziren. Omenaldia jaso zuen emakume bakoitzari deia egin genion,



hartara beraien presentzia ziurtatu genuen. Azken astean, gazte lokaleko nerabeen artean gai honen inguruko lanketa sakona egin genuen eta nerabeen parte hartzea ere konfirmatu genuen ekitaldiaren aurkezpen lanak egiteko.

• Nola joan zen ekitaldia bera?

Eszenatokiaren aurrean 50 aulki jarri genituen eta denak beteta zeudela esan nahi dugu eta ondoko terraza ere bete-beteta zegoela. Emakumeen gaiaren inguruan aritzen den Mirari Martiarenaren bakarrikz-keta batekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari. Ondoren banan-banan emakume bakoitzaren aipamena egin zen eta oholtzara igotzen zirenean txapel more pertsonalizatua eman zitzaion.

• Ze balorazio egiten duzue antolatutako omenaldiari buruz?

Eskerrak eman behar dizkiegu modu batera edo bestera parte hartu duten guztiei; batez ere gazte lokalak egin duen lan guztiaren balorazioa aipatu nahi dugu. Ez dugu nahi urtero errepikatuko den ekintza bat izatea. Uste genuen egin beharreko gauza bat zela baina xarma galduko lukeela. Hemendik urte batzuetara posible litzateke berriro egitea baina beste modu batera agian.

JULIAN Arzamendi Otaegi

(1920-2018)

Astigarraga aldizkariko partaideok aspalditik nahi izan dugu Julian herriko sendagile ospetsuaren berri eman eta aurtengo alean bere bizitzaren ibilbide aberatsa bildu dugu Arantza alabaren ahotsetik.



1940ko hamarkada, Arzamendi Otaegi familia

Julian Donostian jaio zen 1920ko San Simon eta San Judas egunean, urriaren 28an. Gurasoak Anttoni eta Julian, Urola bailarakoak, Donostian ezkondu ziren 1919an. Anttoni (1897), Beizamako Orue baserrian jaioa zen eta Julian berriz (1889), azpeitiarra, erremonteko txapelduna izatera iritsi zen.

Julian seme zaharrena izan zen eta beste lau senide izan zituen, hiru arreba, (Purita, Rosario eta Milagros) eta anaia bat, senideetan gazteena, Jose Luis.

JULIAN Arzamendi Otaegi



1955, ezkontza

Non egin zituen medikuntza ikasketak Julianek?

Oinarrizko ikasketak Sagrado Corazón ikastetxean egin zituen, garai hartan Sanchez Toca kalean zegoen kokatua, gaurko Koldo Mitxelena Kulturunearen atzeko kalean, eta batxilergoa, berriz, Institutuan. Batxilergoa amaitzen ari zenean zalantza handiak izan omen zituen ikasketak aukeratzeko eta azkenean Medikuntza egitea erabaki zuen. Karrera osoa Salamancan egin zuen, gerra ondorengo urteak ziren eta ziur aski urte zailak izango ziren, bizimodu gogorra eta baliabide gutxirekin, baina Julianek Salamancako urte haietako oroimen ona gorde zuen.

Astigarragara noiz etorri zen bizitzera?

Julian Salamancan egon zen urteetan Arzamendi familia Donostiatik Astigarragara aldatu zen, Juanita enea etxera. Tarteka, batez ere udara aldean, Beizamara joaten ziren Anttoniren baserrira eta baserriko lehengusuak tarteka Astigarragara etortzen ziren.



1970eko hamarkada, Pasai Donibane

Zein herritan aritu zen medikuntzan?

1943an medikuntza amaitu ostean Astigarragan eta inguruan hasi zen lanean, Martutenen, Loiolan eta Egian ibiltzen zen etxez etxe gaixoak bisitatzen. Donostian kontsulta bat ere izan zuen, hasieran Prim kalean eta ondoren Fueros pasealekuan. Goizetan Donostian ibiltzen zen lanean eta arratsaldetan, berriz, Astigarragan izaten zuen kontsulta.

Herritarren osasun larrialdiak betetzen pasadizoak izan zituen Julianek?

Garai hartan ez genuen Osakidetza ezagutzen eta segurantza soziala 1970eko hamarkadan garatu zen. Astigarragan ez zegoen anbulategirik eta ezta ere larrialdi zerbitzurik. Bestalde zenbait etxetan ez zegoen telefonorik eta oso normala zen larrialdi bat sortzen zenean, egunez edo gauez, medikuaren bila bere etxera joan behar izatea. Herrietako medikuek denetik egin behar izaten zuten, bat-bateko gaixoadietan edo ohiko gaixotasunetan. Aitari entzuna diogu erditu behar zuten emakumeei ere laguntzera joan behar izaten zuela. Beste batzuetan, istripuak gertatzen zirenean aitaren bila etxera etortzen ziren, ni oso ondo gogoratzen naiz adibidez, baserritarrek nola etortzen ziren segarekin edo igitaiarekin egindako ebakiak sendatzera, sugeen kosketak edo gereziendotik gereziak biltzen ari zirela egindako erorketak ere nahiko arruntak izaten ziren.

Bere emaztea ere San Simon eta San Judas egunean jaio zen, ezta?

1955ean Rosario Sesé tolosarrarekin ezkondu zen, gure ama izango zena. Bizitzako kasualitate bat, emaztea ere San Simon eta San Judas egunean jaioa zen. Astigarragako Portutxo aldean Aldape etxea eraiki zuen, bertan jarri ziren bizitzen eta bertan jaio ginen bi seme-alaba zaharrenak, Arantxa eta Xabier. Ondoren beste hiru etorri ziren, Marisabel, Jon eta Amaia.

Seme-alabei zer ikasketa eman zizkien?

Frankismoaren urte ilunetan bost seme-alabok ikastolara bidali gintuen eta ondoren batxilergoa egitera ikastetxe erlijiosoetara, neskak San Bartolomera eta mutilak jesuitetara. Familia heziketaren oinarriak euskal kultura eta kristautasuna ziren, bi zutabe horien inguruan hezi zituen seme-alabak.

Familiako eta euskal kulturako eginkizunak nola uztartzen zituen Julianek?

Denbora librean familiarekin egoten ahalegintzen zen eta jai egunetan inguruko herrietara txangoak egitea gustatzen zitzaion, egun pasa mendira edo hondartzara. Euskal kulturaren aldeko kezka handia zuen eta Ipar Euskal Herrira joateko ohitura zuen Hegoaldean zentsuragatik aurkitu ezin ziren liburuak eta diskoak erostera.

Bere aita Astigarragan bizi zen?

1964an, bosgarren alaba jaio eta egun gutxitara Julianen aita, gure aitona, gaztetan pelotaria izandakoa eta urte askotan Astigarragan bizi izan zena, Donostian hil zen baina Astigarragan hilobiratu zuten, Julianek gurasoentzat egin zuen hilobian.

Nola gauzatu zuen bere abertzaletasuna?

1970eko hamarkadan, klandestinitate garaian, Eusko Alderdi Jeltzalearen inguruan ibili zen eta batzokiaren bultzatzaileetako bat eta lehenengo lehendakaria izan zen. Astigarragaren burujabetza-ren alde lan egin zuen eta 1987ko ekainaren 30ean lehenengo udal demokratikoa osatu zenean, EAJren zinegotzi izan zen.

Bere azken urteetan zertan jardun zuen Julianek?

2008an Donostiara bizitzera joan zen baina beti gorde izan zuen Astigarrarekiko lotura handia eta herriko berriak eta gora-beherak interes handiarekin jarraitzen zituen.■



2006, Arantzazu



1990eko hamarkada, Alderdi Eguna



1983, hauteskunde kanpaina

Astiarako FEMINISTAK



Nola sortu den Astiarrako feministak

2018ko martxoaren 8ak ekarritako olatuaren eraginez emakume gutxi batzuren bultzadaz hasi zen lehendabizikoz Astiarrako Feministak mugimendua.

Esan behar da hilabete batzuk lehenago sare sozialak dantzan hasiak zirela martxoaren 8aren inguruan aholkuak, gomendioak, ideiak, komentarioak... feminismo zaparrada jasotzen hasiak ginen batetik eta, bestetik, eta hasiera batean utopikoa iruditu bazitzaigun ere, emakumeon energia mugitzen ari zela ohartzen joan ginen. Elkarrekiko babesa sentitzen genuen. Elkar ulertzen genuen. Zertaz ari ginen bagenekien nahiz eta hitzetan jarri ez. Mugimendu sutila, femeninoa baina era berean tinkoa eta sendoa.

Zergatik ez Astigarragan? Eta horrela, ia-ia bapatean, bata besteari egindako deialdiak... eta gonbiteak oihartzuna izan zuen. Ez zen aurretik gehiegi pentsatutako gauza izan, momentuak eskatzen zuena baizik.

Kuriosoa izan zen generazio desberdinak nola elkartu ginen (lau gutxienez) eskuz, eta duela 40 urte lehenago bezala, pankartak eta kartelak egitera. Di-da batean mezua jaso, elkartu, egin beharrekoa egin eta zegokion denborarako argitaratzeko idatzia, pankartak, txartelak... dena prest.

Egun teknologia berriek duten indarraz ere aipamena egin behar dugu, hain da tresna egokia azkar ibiltzeko eta koordinatzeko! Ondo erabiltzen ikasita, ikusi da zer tamainako olatua sortu genezakeen. Baina esan beharra dago, taldearen antolaketa eta eraginkortasuna bermatzearen alde teknologia berriak baino zerbait gehiago beharko dugula. Elkartu, bildu, ideiak trukatu, elkar ikusi zenbaitetan...

Astiarrako Feministak-en identitatea

- Kontzientzia feminista handitzen jardun nahi du.
- Emakumeon bilgune anitza izan nahi du.
- Instituzioetatik libre izan nahi du. Ez dependientea.
- Feminismoaren heziketa gunek bilakatu nahi du.
- Emakumeon burujabetasuna lortu nahi du.
- Gizon eta emakumeon arteko eskubide berdintasuna lortzera joko du.
- Menpekotasunik gabeko gizarterantz joan nahi du.

Feminismoa: eboluzioa – reboluzioa

Feminismoa ez da eta ezin du izan kontserbadoria. Mendeetan zehar gizarte matxista-heteropatriarkal eta heteronormatibo batean bizi gara, kidetasun erlazioa eta errespetuzko erlazioek tokirik ez duten gizartean; bata besteari konparazioak egiten ditugunean elkarrekin lehian ari garela ohartu gabe bizi garen gizartean... gizarte piramidal batean non gizonezko indartsu-botereak agintzen duen eta persona bulnerableenak – ez dugu ahulenak esaten besteen menpe dauden/ gauden. Gizartearen erdia, emakumezkoen osatutako erdia, multzo honetan legoke. Elkarrekiko errespetua nagusitzen den gizarterantz jo behar badugu, derrigorrez gauzek asko aldatu behar dute: gizonezkoek “gainean” egoteak eta dituz-



ten pribilegioek ematen dien erosotasunetik jaitsi beharko lukete, eta emakumezkook, aldiz, “egokitu” zaigun menpekotasunak sortzen digun deserosotasunetik atera eta geure burua errespetatzen ikasiz, igotzera jo behar dugu. Beraz, elkarrekiko errespeturantz **eboluzionatu** nahi badugu, egungo antolaketa **reboluzionatu** beharrean gaude.

Utopia edo... errealitate?

Hezkuntza sistema lehiakorra guztiz, PNVk ere “espíritu ekintzailea” proiektatzen du gure eskolatarako, beraz lehiakortasun handiagoa. Telezaborra interesatuaren eragina, pobreziaz elikatzen den sistema ekonomikoa, besteak daukana desiatzera, inbidia izatera ..., beti tentsioan egotera, gatazkan, gure oinarritzko beharrak ase ezinean, beti kezkan... Emakumezkoak, era sutilean batzuetan, edo argi eta garbi besteetan, baina **beti** sistema honek gutxietsita, gizonezkoaren zerbitzura oraindik ere... Kontzientzia feminista garatzen ari garen neurrian, libre eta aske bizi nahi dugula aldarrikatzen dugu, aukeratzen dugun bizitza mota aukeratzen dugula, horrela bizi nahi dugula.

Itolarria sortzen duen sistema honek menpean nahi gaitu denok, are gehiago emakumeok, eta emakumeok daukagun ahalmenaz kontziente izan gaitzen saiatzen da nondik edo handik.

Feministok ez dugu gure indarra eta energia sistemaren kontra eginaz xahutu nahi. Gizartea eraldatu nahi dugu beste era batera bizi daitekeela ikusaraziz: norbera den bezalakoa izanaz, eta ez agintariekin guretzako proiektatzen dutenari men eginaz. Feministok ez dugu botererik behar besteak dominatu ahal izateko, besteak domestikatzeke. Feministok ahaldun izan nahi dugu, norbera bere buruaren jabe, norbera bere sentimenduen arduradun, norbere ekintzen arduradun...

Emakume ahaldundu batek ezetz esaten jakingo du zerbait komeni edo guztiz gustoko ez duen aukerabaten aurrean, emakume ahaldundu batek lagunduko die besteei berak hori aukeratzen badu eta ez gizarteak laguntzaile papera eman diolako, ezta beste onarpenaren truke ere. Emakume ahaldundu batek ez du besteen onarpenik behar, bere buruarena baizik; emakume ahaldundu batek ez du onartuko gutxiespenik, emakume ahaldundu batek ez du besteak gustora egon daitezen bere nahia bigarren mailan utziko, emakume ahaldundu batek bere buruan sinesten du eta zertarako gai den badaki; emakume ahaldundu batek bere burua ezagutu eta onartzen du eta ez ditu desiratuko une bakoitzeko modak: batean ipurdia gora, bestean beheara, batean titiak borobilak, bestean karratuak ... Emakume ahaldundu batek bere burua errespetatzen badaki, beraz errespetatua izan dadin eskatuko du eta, noski, besteak errespetatuko ditu, emakume ahaldundu batek ez du “domestikazioa” inondik ere onartuko, ez du erraz men egingo, bere interesak defendatu edo negoziatuko ditu “parez pare” jarrita.

Emakume ahaldunduak formatzean eta heitzean ote dago gakoa? Nonbaitetik hasi behar dela gauza segurua da. Batak bestea mugituko du eta besteak bestea... gizonezkoek ere bere maskulinitatea lantzearekin elkar ulertzeko eta errespetatzeko bidea jorratuko lukete, eta prozesu honetan ezinbestekoa izango dugu beraien laguntza eta aportazioa. Era berri honetan bizitzeko hautua egiten dugun gizonezko nahiz emakumezkook, etxetik hasita, esparrua zabaltzen joan gaitzke... poliki baina tinko, zaharra “desikasiz” eta berria bizitzen ikasiz...

BETI AURRERA BEGIRA!

Astiarako feministok

SUGE ETA SUGEGORRIAK:

EUREN OSPE TXARRAREN BIKTIMA

Animalia espezie edo talde batzuek, beste guztiek pairatzen dituzten mehatxuez gain, beste bat jasan behar izaten dute, jazarpen zuzena, izan ere, inongo oinarririk ez duten uste eta esaeren oinarrian, jendeak hil egiten baititu. Euskal Herrian dauden 11 suge espezieetatik 6 Astigarragan ikus daitezke.

ION GARIN - Aranzadi

Gizakiak antzinetatik izan du sugeenganako jarra mesfidatia, izan ere, bizidun hauen aurrean dugun erantzuna berezkoa dugu primate espezie guztiok. Baina apurka beldur hauek uxatu behar-ko genituzke, eta ez zait bizidun liluragarri hauek ezagutzea baina modu hoberik bururatzen. Eta lan horretan nahitaez uste eta kondairak gezurtatu behar-ko dira, izan ere, bizidun hauen inguruan, oinarri sendorik gabeko hainbat uste oker bildu baitira.

Sugeak narrastiak dira, hau da, beste hainbat ezaugarri bereziren gainetik, ezkata sendoen bidez hankarik gabeko gorputz luzanga erakusten dute. Espezie gehienak obiparoak dira, hots, os-

kol gogorreko arrautza multzoak jartzen dituzte, baina ez denak, badira bibiparoak diren suge espezieak ere, hau da, erditzean suge edo sugegorri kumeak askatzen dituztenak. Euskal Herrian badira bi espezie: sugegorri kantauriarra eta iparraldeko suge leuna. Beste ezaugarriak aditzera eman aurretik, lehen ustea gezurtatu behar dugu. Gorputz luzanga hankarik gabea agertu arren, zirauna ez da suge espezie bat, eboluzioaren poderioz hankak galdu dituen musker espezie bat da zirauna (1. IRUDIA). Beraz zirauna kalterik egiten ez duen espeziea da, nekazarien laguna, izan ere, bere elikagai gogokoen artean daude letxugak jaten dituzten bareak.



(1) Zirauna (*Anguis fragilis*). Argazkia: Javier Álvarez

Ikusi, gozatu, baina ez ukitu

Sugeak topatzea lan nekeza izaten da, zientzialariek baztertu egiten dituzten sugeekin egin beharreko lanek esfortzu ikaragarria eskatzen baitute. Normalean ezkutuan egoten dira, edota eguzkitan egonda ere, babeslekuak gertu izan ohi dituzte, ihes egin eta salbu egoteko. Suge espezieen ikerketak burutu diren eremuetan, adibidez, Arabar Errioxan (babestuta dauden hainbat espezie daude eta), errepideetan zanpatuta ikusi diren aleen garrantzia oso altua izan da, ia portzentaje berean ikusi baitziren bizirik zeuden eta hilik topatu ziren banako kopuruak. Gauzak honela idatzi honetan argi adierazi nahi duguna da sugeek normalean ezkutatu eta ihes egiteko joera erakusten dutela. Suge bat ikusiz gero gozatu momentuaz, eta denbora izanez gero, tentu handiz (banakora asko hurbildu gabe), saiatu argazki bat ateratzen eta espeziea bereizten. Zalantzak badituzue bidali argazkia herpetologia@aranzadi.eus helbidera eta lehenbailehen erantzungo dizugu.

Suge eta sugedorriak, nola bereizi?

Hor dago koska. Gauza gutxi daude bereizten horren errazak izanagatik ere, horrenbestetan azaldu behar izaten direnak. Urtez urte, ehunka edota beharbada milaka suge hiltzen dira, kasu askotan kaltegarriak izan gabe. Tamaina da bi talde hauek bereizteko aldagaietako bat, metro bat baino gehiago neurtzen duten espezie guztiak

sugeak dira. Aldiz, sugedorriek nekez gainditzen dute metro erdiko luzera. Gauzak honela arreta bereziagoa jarri beharko zaie tamaina txikiko banakoei, jakinda Euskal Herriko suge espezieen kumeek ere tamaina murrizta izaten dutela lehen hazkuntza faseetan. Zertan jarri behar dugu arreta? Hasteko, sugedorriek itxura mardulagoa erakusten dute sugeen aldean. Isatsa motza izaten da, gauzak honela bere gorputz sendo eta lodia punta motz batean amaitzen da. Alderantziz, sugeak latigo bat dirudi, isats luze eta gorputz lirainarekin. Beste ezaugarri batzuk ere aintzat hartu daitezke bereizketa egiteko baina bakoitzak badu bere alde on eta txarra. Sugedorriek begi nini bertikala izaten dute eta buruko ezkatat txikiak izaten dira (2. IRUDIA). Sugeek, aldiz, begi nini borobila izaten dute eta buruko ezkatat elkarketa bidez sortzen diren plakak handiagoak dira (3. IRUDIA), baina ezaugarri hauetaz jabetzeko ez da inoiz banakoa hartu behar, argazki bati zoom-a eginez ikus daitezkeen ezaugarriak dira. Amaitzeko sugedorriek hiruki formako burua izaten dute, baina kalterik egiten ez duten suge espezie batzuk mehatxaturik sentitzen direnean burua hiruki formakoa jartzen dute. Ondorioz, suge eta sugedorriak bereiztea lan erraza izaten da, baina esperientzia behar izaten da. Liburu eta gida liburuak ikusi ostean jasotako informazioa ere lagungarri suerta liteke. Astigaragan ikus daitezkeen sei espezieetatik bost sugeak dira eta bakar bat sugedorria (I. TAULA).



(2) Sugedorri kantauriarra (*Vipera seoanei*). Argazkia: Manuel Océn

I. TAULA. Astigarragan ikus daitezkeen suge espezieen zerrenda eta babes maila (Europa mailan ezaguneneta-ko bat Habita Arteztaraua eta Erkidego mailan, Euskal Autonomia Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Zerrenda).

Izen arrunta	Izen zientifikoa	Habitat Arteztaraua	EAEko EMZ
Suge gorbata-duna	<i>Natrix astreptophora</i>		
Suge biperakara	<i>Natrix maura</i>		
Iparraldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>	IV. eranskina	
Hegoaldeko suge leuna	<i>Coronella girondica</i>		
Eskulapioren sugea	<i>Zamenis longissimus</i>	IV. eranskina	Interes berezikoa
Sugegorria kantauriarra	<i>Vipera seoanei</i>		



(3) Suge gorbata-duna (*Natrix astreptophora*). Argazkia: Egoitz Alkorta

Zer egin suge batek hozka egiten dizunean?

Beste hainbat gauzatan bezala, kasu honetan ere telebistaren eragina oso negatiboa izan da, kasu batzuetan iradokitzen diren gauzak guztiz kaltegarriak baitira. Segidan modu laburrean adierazten diren neurriak zinez erabilgarriak dira. Utzi biziraupen irakaspenak akzioko pelikulen protagonista edota telebistan paila-zoarena egiten duten tenis jokalarari itxurako sasibiologoentzat.

BAI

- Hozkatu duten gaixoa lasaitu, taupada bizkorrak izanez gero pozoia errazago hedatzen baita. Eta lehen sintomen esperoan geratu, izan ere, gerta liteke hozkatu zaituen espeziea suge espezie bat izatea, eta ez sugedorria. Kasu horretan zauria garbitu, ura eta xaboiaren bidez, eta aski litzake.
- Hozkada jaso duen gorputz atala eskua bada immobilizatu, besoa tokan jarritz (*en cabestrillo*).
- Ahalik eta lasterren, baina korrika egin gabe bihotz taupadak arindu ez daitezten, osasun zentro batetara eramane zauritua.

EZ

- Ez harrapatu sugea identifikatzeko. Berriz ere hozka egin diezazuke eta espeziea zein den ezagutzea ez da garrantzitsua, izan ere, Euskal Herriko sugedorri espezieen hozkadak artatzeko ez baita antidotorik behar.
- Ez egin mozketarik zaurian eta ez zurrupatu odola, pozoia hedatu eta kalteak areagotu daitezke eta.
- Ez egin torniketerik, gorputz atala gangrenatu liteke eta.
- Ez eman artatuari produktu estimulatzailerik (kafea, alkoholdun edariak edota medikamentuak).
- Ez jarri izotza hozkada eman den gunean, tegumentuen suntsipena laguntzen baitu.
- Ez egin kasu antzinako erremedioei. Aurrez esan bezala, ahalik eta lasterren, baina ez presaka, osasun zentro batetara joan. ■

Mundarroko PILOTARIEN URTE OPAROA

Garaikurrez bete samarra izan dute urtea Mundarroko pilotari gazteek.

Lan bikaina egin du nork bere modalitate eta mailan.

Egin dezagun laburpen txiki bat.



Aimar Mujika eta Ekain Lizeaga txapeldun, trinketeko binakako txapelketan

Aurtengoa izan dute lehen esku hartzea trinkearen modalitatean eta finalerako zuzen. Aimar Mujika eta Ekain Lizeagak osatutako bikoteak txapela lortu zuen Gipuzkoako Trinketeko txapelketan, kadete mailan, Oiarpe 1 taldeari 40-26 irabazi ondoren.



Ekain Lizeaga, txapeldunorde Gipuzkoako trinketeko kadete mailan

Banakako txapelketan, aldiz, Ekain Lizeaga finale-rako sailkatu zen, Epleko pilotaria garaitu ostean. Finalean, ordea, ezin garaipenik lortu Zalakain oiartzuarraren aurrean. Nolanahi ere, emaitza bikaina trinketeko bere lehen urtean.



Oier Gurutzealde, Estatuko trinketen txapeldun

Estatuko Trinkete Txapelketa irabazi zuen Oier Gurutzealde, Julen Loitegirekin batera, joan den ekainaren 16an, Iruñean jokaturako finalean. Bestalde Trinketeko Gipuzkoako 1. mailan finalera sailkatu zen Oier, Iri-sarri bikote zuela. Finala, aldiz, Iruran jokatu zuten eta galdu. Gainera, Iparraldeko txapelketan ere aritu da Gurutzealde, baita GRAVNI txapelketako finalean ere..



Aner Urdangarin eta Eñaut Lizeaga Gipuzkoako txapeldun 2. mailako infantiletan

Errenteriako Eple taldeko pilotariei 18-8 irabazita lortu zuten Gipuzkoako bigarren mailako txapela Eñaut Lizeaga eta Aner Urdangarin pilotari infantilek.



"XABINA eta IXABEL, URTEEK APURTU EZ DUTEN ADISKIDETASUNA"

Xabina Arruabarrena Astigarragako plazan jaio zen, handik metro gutxira Ixabel Labaka, Ipintza baserrian. Biek aspaldi bete zituzten 80 urteak baina edozein aitzakia primerakoa da elkarrekin solasaldi alaia izateko.

Guk biak elkartu ditugu Ipintza baserrian euren haurtzaroari, gaztaroari eta Astigarragako kontu zaharrei buruz hitz egiteko eta, batez ere, sendo jarraitzen duen adiskidetasunaz mintzatzeko.

GARBINE San Migel

Garbiñe: Lehenik eta behin eskolaz hitz egingo dugu. Biak elkarrekin ibili al zinaten?

Xabina: Ez, ni plazan ibili nintzen. Ez dut gainera oso oroitzapen onik. Nire familiak gerra garaian herritik alde egin zuen eta itzuli ginenean maistra frankista zegoen hemen eta pupitrerik ere ez zidan eman. Edozein akatsen aurrean, orratza gaizki jartzea adibidez, nahikoa zuen "esto te han enseñado los rojos!!!" esateko, behin eta berriro.

Ixabel: Ni berriz mojetan ibili nintzen, gaur egun Kultur Etxea dagoen eraikinean, eta hor denetarik zegoen, baina kasu gehien kategorikoei edo jakiak ematen zizkietenei egiten zieten. Dena den, oso umetan aita hil eta 12 urterako joan nintzen nekame Donostiara.

Garbiñe: Eta jolasei buruz?

Xabina-Ixabel: Gu neskak txingoan, kaniketan, sokasaltoan, harrapaketan eta unetan (tabak) jolasten ginen batik bat... hori bai plazatik irten gabe. Igande arratsaldetan Txomin San Sebastian egoten zen pretilean txistua joaz.

Gainera, umetatik amari laguntzen genion Goiko Iturrin arropa garbitzen. Eurek arropa handia, geuk pañuelo txikiak. Hankak uretan sartu eta emakume koadrila biltzen ginen. Donostiara Ma-drildik uda pasatzera etorritako familien arropak garbitzen genituen -esan digu Ixabelek atzoko kontua bezala-. Aingirak ere ikusi izan ditugu Goiko Iturrin.

Garbiñe: Batak 12 urtetarako, besteak 14rekin, biak ala biak lanera ...

Ixabel: Donostiako familia bateko haurrak zaintzera joan nintzen lehenik, poliki-poliki etxeko lan guztiak egiten amaitu nuen.

Xabina: Ni berriz fabrikara, Hernanira.

Garbiñe: Eta gaztaroa nola gogoratzen duzue?

Ixabel-Xabina: Igandero lehen-lehenik Oialume-ra joaten ginen, han bi edo hiru pieza dantzatu, gu hasten ginen gainera beti dantzan eta ondoren Hernanira joaten ginen mutil lagunak, "interesak", hantxe genituen eta (une honetan biek barre algara egin dute). Dantza plazan izaten zen eta udan Tilosetan. Senarrak ere biok Hernanin hartu genituen.

Eta urteko zita garrantzitsua herriko festak izaten ziren, Santiyuak ... Gaueko 12ak aldera arte izaten zen musika, eta amaitzean gazte guztiok "txipitixonian" laguntzen genituen musikariak tranbira-raino.

Banda militarra ere izaten zen eta soldadu ugari etortzen ziren festetara.

Xabina: Xexenak izaten ziren plazan eta gogoratzen dut aitzak etxeko atea zabaltu eta xexena etxe barruraino sartu zela... emakume guztiok komunean sartuta, beldurtuta.

Garbiñe: Ezkondu zineten baina lagun min izaten jarraitu zenuten?

Ixabel-Xabina: Ni 27 urterekin ezkondu nintzen eta 28rekin ama nintzen, Xabina berdintsu. Gure umeak hartu eta hemen Ipintzan ibiltzen ginen gora eta behera.

Bati baino gehiagori ematen zion amorru gure adiskidetasunak eta "la pareja de la Guardia Civil" deitzen ziguten, desairekin haserretzen ez ote ginen galdetzen zigunik ere bazen, baina gu beti umoretsu eta elkarrekin. Oso oroitzapen onak ditugu, barre egiten genuen gogotik.

Garbiñe: Etxeko lanak, haurrak zaindu eta Donostiara ere joaten zineten baserriko produktuak saltzera...

Ixabel: Bai, noski. Lehendabizi Kostutazio plazan saltzen genituen barazkiak eta, ondoren, Bretxara pasa ginen.

Xabina: Ederki gogoratzen dut, tranbian nola joaten ginen, autobusa geroago etorri zen. Tranbian askotan izaten ziren arazoak, pertxa aterata, eta ordubete edo bi ordu bidean ere egiten genuen...

Ixabel: Nik oraindik gogoan dut nola harrapatu zuen tranbiak Parada baserriko emakumea. Negar eta negar pasa nuen egun guztia.

Garbiñe: Zuen sasoiko garaietan sartzen al zineten tabernetan?

Ixabel-Xabina: Ezta pentsatu ere... Oso gaizki ikusia zegoen emakumea tabernan. Senarrekin ere ez ginen ia sartzen. Hori bai biok zinera joan ginen Donostiara "Gilda" ikustera. Bekatua zen eta ezkutan joan ginen bestela "exkomulgatuko" gintuzten.



Argazkian: Miren, Xabina, Ixabel eta Tere

Gaur asko entzuten ditugu emakumeei egindako gehiegikeriak, ukituak ... orduan oraindik eta gehiago ziren... Zinean zaplaztakoa eman izan diondoan zegoen ezezagunari edo autobusean deseroso sentituarazi gaituzte.

Garbiñe: Eta Astigarraga, asko aldatu al da ordutik hona?

Xabina-Ixabel: Erruzzz!!!. Asko handitu da eta ia ez dugu inor ezagutzen. Plazak ez du lehengo bizia, pentsa orain 60 urte bazirela plazaren inguruan bost bat denda txiki edo ultramarinos, denetatik saltzen zuten eta bertan egiten genituen erosketa guztiak.

Garbiñe: Eta amaitzeko, familia hazi ondoren, zuen adiskidetasunaz disfrutatzen jarraitu duzue...

Biak batera: Noski!!!. Orduan lasaiago... Donostiara antzerkia ikustea askotan joan gera, Alde Zaharrera. Baita Aste Nagusian suak ikustera... eta urtebetetzea edo zerbait ospatzeko bagenuen, lehendabizi afaltzea. Ordu asko eman ditugu elkarrekin eta gehienak alaiak izan dira.



Astiarako gaztiak

aurtengo Santio jaietan ere parte hartu eta herriarekin

disfrutatzeko gogo biziz!

Jaiak prestatzeko gogotsu agertu gara beti eta gure festak sortzen dituen gorabeherak arintzeko elkarlanerako lanean ere bai. Aurten gure perspektibak bere frutuak eman ditu, alde batetik, Udal gobernua urte urte jartzen dizkigun oztopoen gainetik herritar guztion festak ospatzeko indarrez atera garelako (denboraz larri xamar, baina ilusio handiz!) eta bestetik, gertatutakoaren ondorioz, herriko eragileekin harremanak sendotzea lortu dugulako, Udalaren kalterako, argi ikusi denez.

Idatzi honen bidez, alde batetik, eskerrak eman nahi dizkiogu herriari, zuengandik jasotako babesa eta laguntza bultzada izugarria eta motibazio iturri izan baitira guretzat. Zuekin sortu dugun olatuari esker Udal gobernuaren aurrean kementsu agertu gara, herriarentzako hoberena lortuz. Honekin denok ikasi dugu eta argi geratu da herriaren oinarria elkarlana izan behar dela.

Txosnaguneko ateak beti egon dira irekita nahi duenarentzat! Eta hemendik aurrera ere horrela izaten jarraituko du! Herriarekin lan egiteko nahia eta gogoia beti adierazi dugu. Beraz, bertara gerturatzerantz animatzen zaituztegu, bai ekintza puntual bat antolatzeko, ideia berriak gomendatu edo Santio jaietan, gurekin batera, gestioa eraman eta festa ezinhobeak antolatzeko.

Egoera honek, itzalita zegoen gazte-sua pizteko balio izan digu. Oraindik asko dugu egiteko, beraz, gerturatu zaitezte!

“Udal gobernua urte urte jartzen dizkigun oztopoen gainetik herritar guztion festak ospatzeko indarrez atera garelako”

“Eskerrak eman nahi dizkiogu herriari, zuengandik jasotako babesa eta laguntza bultzada izugarria eta motibazio iturri izan baitira guretzat”

“Egoera honek, itzalita zegoen gazte-sua pizteko balio izan digu. Beraz, bertara gerturatzerantz animatzen zaituztegu”

Zanpatu ezin dituzuen sagarrak gara!

Astiarako Gazte Asanblada

Astigagako



JAIK 2018



Vztailaren 24a, asteartea

- 12:00 TXUPINAZO TXIKIA** Foru plazan Xaguxar elkarteak antolatua.
- 14:00 BAZKARIAK**
- HAUR BAZKARIA Herri Eskolako atarian.
- GAZTELEKUKoa J. Barandiaran plazan.
- 17:00 HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA**
Txomiñenean.
- 19:00 PREGOIA** eta jaien hasierako **TXUPINAZOA** udaletxeko balkoitik.
- 19:30** Gazte Asanbladaren **TXOSNA-IREKIERA**.
- 23:00 KONTZERTUA** txosnan.
- 00:30 KONTZERTUA**.



Vztailaren 25a, asteazkena

- 9:30 DIANA BEREZIA**.
- 11:00 MEZA NAGUSIA** Done Jakue ermitan.
- 12:30 UDALBATZAREN SOKA-DANTZA**
Foru plazan.
- 17:00 HAURRENTZAKO JOLASAK** Pelotari kalean.
- 18:00 ASTIGAR** Taldearen **DANTZA ERAKUSTALDIA**
Txomiñenean.
- 19:00 TXARANGA** herriko kaleetan.
- 19:30** Santana eguneko idi demako **IDIEN PISATZEA** Foru plazan.
- 20:30 KONTZERTUA** txosnan.
- 23:00 KONTZERTUA** Joseba Barandiaran plazan.
- 00:00 LARRAIN-DANTZA** Foru plazatik abiatuta.
- 01:00 GAZTE JOLASAK** txosnan.

Uztailaren 26a, osteguna

- 9:30** ZUBIETako joaldunak.
- 10:00** ESTANGATARRAK **TRIKITILARIAK** kalejiran.
- 11:30** **HERRIKO BASERRIETAKO LANGINTZEN ERAKUSKETA** Foru plazan:
ETXELUZE baserrikoek estaka egiten eta
BUSTIETAKoek abere perratze-lanak osatzen.
- 11:30** **SAGARDO DASTAKETA** Foru plazan.
- 11:30** **IDI DEMAK**
1.500 kiloko harria eta lau idipare
PAGADIZABAL, ETXETXO, IZETA eta
OLIDEN.
- 12:00** NEREA ELUSTONDO, AITOR MENDILUZE
eta AGIN LABURU **bertsolarien saioak**.
- 14.30** **Bazkaria** IPINTZA sagardotegian.
- 17:00** **SOKAMUTUR TXIKIA** Herri Eskolako atarian.
- 17:00** PASAI txaranga.
- 18:00** **HERRI KIROL EN JAIALDIA** Foru plazan
* ERRENTERIA eta ASTIGARRAGA herrien
arteko **DESAFIOA**.
* XABIER Orbegozo, ARRIA V.a, aizkolariaren
eta GOLDEA Elkartearen arteko
NORGEHIAGOKA.
- 19:30** **HEGALUZZA eta GERNIKAKO PIPERRAK**
parrillan erreta Joseba Barandiaran plazan.
- 19:30** **TRIKITILARIAK** Foru plazan.
- 19:30** **BERBENA** Joseba Barandiaran plazan.
- 22:00** **ABESLARIA** Gazte Asanbladak antolatuta.
- 22:30** **KALEJIRA**.
- 23:30** **KONTZERTUA** txosnan.





Uztailaren 27a, ostirala

11:00 HAUR PARKEA.

14:00 BAZKARIAK

- ERRETIRATUEN BAZKARIA Galtzaurren.
- GAZTE BAZKARIA txoznaren karpan.

17:00 AULKI DANTZA txosnan.

17:00 HAUR PARKEA Herri Eskolako atarian.

17:30 DANTZALDIA Norberto Almandoz plazan.

17:30 TXARANGA

19:30 DANTZALDIA txosnan.

20:00 DANTZA IKUSKIZUNA Pelotari kalean.

23:00 KONTZERTUA J. Barandiaran plazan.

23:30 KONTZERTUAK txosnan.

Uztailaren 28a, larunbata

7:00 BARRENE partidak Txomiñenean.

10:00 Haur eta gazteentzako **TXIRRINDU-IGOERA.**

11:00 MARMITAKO lehiaketa herrikoia
Foru plazan.

12:30 Helduen **SANTIO IGOERA** herrikoia.

14:00 MARMITAKO bazkari herrikoia
Foru plazan.

16:30 DANTZALDIA Foru plazan.

17:30 BINGOA Galtzaur elkartean.

23:00 ZESENSUZKOA J. Barandiaran plazan.

23:00 KONTZERTUA J. Barandiaran plazan.



Erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katean, 16. kate begian etenik ez

Gure Esku Dago ekimenak deituta, ekainaren 10ean egin zen Donostia eta Gasteizko Legebiltzarra 201,9 kilometrotan barrena lotu zituen giza katea, "Eman eskua etorkiZUnari" lelopean.

Ez zen erronka makala izan ez Euskal Herriarentzat, ezta astigartarrantzat ere.

Nahi bezain erraz ez izan arren, Astigarragak osatu zuen bere kilometroa, ibilbideko 16.a, adarraren deiar erantzunez.

Modu horretan erakutsi zuen Euskal Herriak iritsi dela herritarron garaia herri bat garela eta erabakitzeko eskubidea dugula aldarrikatzeko.



Zorionak eta eskerrik asko bertan parte hartu zenuten 364 astigartarro!

Astigarragako Gure Esku Dago



Astigarragako HERRI ESKOLAREN EGOERA

Herri Eskola eta Guraso Elkartea

Astigarragako Herri Eskola 2016. urtean bereizi zen Arantzazuko Ama ikastolatik eta orduan hartu zuen gaur egun duen izena. Handik aurrerako bidea bakoarrik egiten hasi zen. Guraso elkarteak ere berrikuntza izan zuen orduan, estatutu berriak idatzi ziren eta karguak aukeratu eta izendatu ziren.

Guraso Elkartea eta Herri Eskola beti aritu izan dira elkarlanean. Guraso Elkar-tearen helburuak hainbat eta hainbat dira. Gurasoen artean ezagunena eskolaz kanpoko ekintzen antolakuntza da baina, horrez gain, baditu beste hainbat batzorde. Festa batzordea, ekonomia batzordea, euskara batzordea, handipen eta DBH batzordea, haur txokoa, jangela batzordea, etab. Hilero elkartzen gara eta, eskolako eguneroko gaiak lantzeaz gain, batzordeetako gaiak jorrazten ditugu. Iraunkorra deritzon batzorde bat ere badugu eta batzorde honen helburua da eskola eta guraso elkartearen arteko informazioa era azkarrean partekatzea.

Herri Eskola handitzen ari da

Eskola, azken urteetan, asko handitzen ari da eta baita eskolaren beharrak ere. Astigarragako biztanleria ikaragarri handitu da eta herrira etorri den jendea, orokorrean, jende gaztea da. Horren erakusle da izaten ari garen jaiotze tasaren igoera.

Urtea	Biztanleak	Jaiotzak	Matrikula (3 urtekoak)	%
2005	4234	84	84	59,5
2006	4386	80	45	56,2
2007	4523	73	53	72,6
2008	4678	79	54	68,3
2009	4715	82	53	64,6
2010	4821	86	60	69,9
2011	5000	73	56	76,7
2012	5305	87	69	79,3
2013	5525	79	65	82,2
2014	5738	88	63	71,5
2015	5881	84	68	80,9
2016	6092	106	62	
2017	6296	107	66	
2018	*	8	83	*
2019				

Taulan ikus dezakegun moduan, batatz beste, gutxi gorabehera, jaiotzen diren haurren %75 inguru herri eskolan matrikulatzen da.

2018-2019 ikasturterako 80 matrikula izan dira eta Hezkuntzatik 2 urteko gela bat gehiago izatea onartu da. Beraz, 5 gela izango ditugu. Ondoren, talde hau 2019-2020 urtean 4 gela izatera pasako da eta, hortik aurrera, pixkana-pixkana 4garren lerroa sartuko da eskolan.



Arazo larrienetako bat jangela

Handitze honen eraginez, gero eta espazio arazo gehiago ditugu ikastolan. Arazo larrienetako bat jangela txikian duten leku falta da. Egun, jangela txikian Haur Hezkuntzako haur guztiek bazkalzen dute. Jangelak 90 bazkaltiarrentzat du lekua baina 90 baina gehiago izatera iristen dira egun batzuetan. Honen aurrean, eskolako zuzendaritzak eta Guraso Elkarteak (OOGaren izenean) Udalarri jangela handitzeko eskatu zion martxoan. Plenoan onartu zen eskolako jangela handitzea, 2018ko irailean prest egon dadin. Hezkuntza Sailaren Ordezkaritzako ikuskariak ere jangelan egon dira eta espazio falta dagoela onartu dute. Udalak bere hitza eman du irailerako jangela handitzeko lanak amaituta egongo direla. Bere hitza bete dezala espero dugu, egoeraren larritasuna ikusita.

Baina ez hori bakarrik

Jangelarena ez da, ordea, eskolan espazio faltagatik dugun arazo bakarra. Ume guztiek ezin dute psikomotrizitate gela erabili. Ingelesko ikasgela bat ere kendu behar dute. 2019-2020 ikasturtean ikasle talde batek ikastolatik atera eta barrakoietan edo Kontxa Etxeberrian kokatutako lokaletan pasa beharko du ikasturtea. Udalak jakinarazi duenez, Arroitxulon eraikin berria egingo dute. Hau berri ona izan arren, 2023ra arte (epeak betetzen badira) eraikuntza berria ez da prest egongo.

Eta egun ikasle diren haurren egoera ez du konponduko. OOGak Udalarri jangela handitzeko eskatu zionean, handitze horrek jangelaren gainean bi ikasgela gehiago egitea ahalbidetzeko eskatu zuen. Plenoan aho batez baieztatu eman arren, Udalarrekin izandako bileretan hori ez dutela egingo esan zaigu. Erabaki horrekin ikastolako zuzendaritza eta Guraso Elkarteak ez gaude ados. Izan ere, 2019-2020 ikasturterako jangelaren gainean ikasgela gehiago egiten badira, haurrak ez dira barrakoietara joango eta ez dira eskola eremutik aterako. Udalak plenoan onartutakoa errespetatu eta bete dezala espero dugu.

Haurrak herritik kanpo...

DBHren arazoa ere hor dugu. Astigarragako haurrek herritik kanpo egin behar dute DBH, herrian aukerarik ez dagoelako. Guraso Elkarteak eta Udalak hainbat bilera egin ditugu. Eta Udalak bere konpromisoa azaldu arren, azken bi urteetan aurrerapausorik ez du eman. Hezkuntza Sailaren Ordezkaritzak baimendu behar du Astigarragan DBHko eraikuntza egitea. Baina, horretarako, Udalak lursail bat hiritartu behar du. Plan Orokorrean hilerriaren azpian dagoen lursailetan egitea aurreikusita dago. Baina Udalak orain bideragarria ez dela esan eta beste bi aukera aztertzen ari da. Indarra hartu duen aukera Ergobian kokatzea da. Baina honek arazo bat du Guraso Elkartearen ustez. Izan ere, promotora batek hiritartzearen kostua bere gain hartuko badu ere, trukean 200 etxebizitza egiteko baimena emango lioke. Bestetik, plan orokorra aldatzea eskatuko luke (2 urteko epea gutxi gorabehera) eta hiritartzearen epea luzatzea. Hezkuntzak baimena eta onarpena ematerako lursail batek hiritartua egon behar duenez, Udalarri lehenbailehen egiteko eskatu zaio. Udalak 2019ko uztailerako lan hauek eginda egongo direla hitz eman du.

Gaur egun DBH Martutenen egiten dute Astigarragako haurrek baina hemen ere jada espazio arazo larriak dauzkate. Datorren ikasturteari begira esaterako, Martuteneko jangelan haurrak sartzen ez direnez, astelehenetik ostiralera DBHko haur guztiek jardunaldi trinkoa egingo dutela erabaki dute. Beraz, 14:00tan klaseak amaituko dituzte. Etxera bueltatzeko autobusa 14:00tan dutenez, familia askok jangela zerbitzua ez erabiltzea erabaki dute. Izan ere, gurasoek eskatu badute ere, 14:30ean bazkaldu ondorengo autobusik ez diete jarriko. Astigarragan DBH izango bagenu egoera hau ez genuke izango ez astigartarrok eta ezta Martuteneko haurrek ere.

GURASO ELKARTEA

EN RECUERDO DE **AMAIA IMAZ ALMANDOZ (1933-2005)**

Una vida al servicio de los más desfavorecidos

Debido a la curiosidad que ha suscitado el hecho de que el pasado mes de abril, se pusiera el nombre de Amaia Imaz Almandoz a una plaza en el barrio de Vallengas de Madrid, algunos vecinos de Astigarraga han querido conocer mejor a esta mujer, que algunos aún recuerdan cuando de jovencita recorría sus calles en bicicleta o se divertía en las fiestas patronales.



Amaia era hija de José Imaz, natural de Segura, y de Carmen Almandoz, oriunda de Astigarraga, de la Casa ALMANDOZENE.

Aunque Amaia nació en Beasain, pronto su familia pasó a vivir a San Sebastián, es por eso que, desde muy niña, frecuentaba la casa de la familia en Astigarraga.



Extrovertida y cariñosa

Además del parentesco familiar que nos unía, éramos grandes amigas a pesar de que yo era un poco mayor. Tuve la suerte de compartir con ella años de niñez y de juventud en Astigarraga y en San Sebastián, ya que a menudo pasaba temporadas en la casa que los tíos tenían en la calle Loiola, que se había convertido en mi segundo domicilio.

Amaia era extrovertida y cariñosa, también un poco coqueta. Su belleza nunca pasaba desapercibida en los ambientes que frecuentaba. Desde jovencita mostró inquietudes religiosas, que tuve la suerte de compartir con ella. En aquellos años disfrutamos de una gran amistad e intimidad, que conservamos a lo largo del tiempo, aunque nuestros caminos se separaran muy pronto.

Después de cursar sus estudios de bachillerato en la Compañía de María de San Sebastián, Amaia decidió entrar en el noviciado de esa orden religiosa, aunque al principio no contaba con el apoyo de su familia, ya que pensaban que era demasiado joven. Recuerdo bien el día en que después de ir a la peluquería y darse un baño en la playa, Amaia emprendió su nuevo camino. Con 21 años tomó los hábitos, y en sus primeros años se dedicó a la enseñanza del inglés en los varios colegios que tenía la Compañía de María, Bergara, Haro, Tudela, Zaragoza... Solía acompañar a las alumnas a Inglaterra. Como era tan cercana y comprensiva, se ganaba muy pronto el afecto y al respeto de las alumnas. Era una más del grupo.

Una enorme labor humanitaria y religiosa

Pasado un tiempo, en 1964, su vocación dio un giro enorme cuando decidió marchar a Filipinas y a Japón. En Filipinas, pasó años muy duros y peligrosos en los que trabajó a favor de las personas más desfavorecidas, presos, huérfanos, mujeres, víctimas de la dictadura de Ferdinand Marcos. Amaia realizó una enorme labor humanitaria y religiosa poniendo en riesgo su propia vida. En casa recibíamos sus noticias con cierta inquietud. Nos contaba que comía un cuenco de arroz al día, que solía bu-

cear para recoger corales y ayudar a las familias, que iba a las prisiones para dar noticias a los familiares de los presos. Esos años marcaron de forma definitiva su forma de pensar y de vivir la fe cristiana. A pesar de sus deseos de continuar trabajando en Filipinas, tuvo que abandonar este país al que ya no regresó.

Su amado barrio de Vallecas

Vallecas fue otro de sus destinos más queridos, al que llegó en 1986. El Vallecas de entonces era un lugar deprimido y muy pobre y con un alto nivel de paro. Amaia se involucró inmediatamente en

varias causas sociales, aunque una de las más queridas para ella fue la alfabetización de mujeres y el trabajo con la etnia gitana, siendo una de las fundadoras de la *Asociación Barro* de Vallescas.

Con 57 años Amaia enfermó de Alzheimer y tuvo que salir de su amado barrio de Vallecas a la casa que la Compañía de María tiene en Valladolid. Allí, en la medida de sus posibilidades y mientras la enfermedad lo permitió, ayudó en todo lo que pudo a las hermanas ancianas y enfermas, siempre con su extraordinaria sonrisa. Falleció en 2005, a la edad de 72 años.

Amaia transmitía alegría y bondad. No dejaba de hablarnos de las personas necesitadas; de sus problemas, de sus inquietudes e ilusiones, siempre con alegría y buen humor. Nos abrió la mirada a otros mundos y realidades, despertó nuestras conciencias y nos enseñó que en la ayuda al prójimo está la base de la fe cristiana.

Vallecas se ha volcado con Amaia y yo desde estas líneas también quisiera contribuir a difundir entre las gentes de Astigarraga su trabajo y su recuerdo.

Musu handi bat Amaia,

lehengusu maitea! Beti nire bihotzean!

Isabel Almandoz Almandoz



Bufanda jantzita

1

Irrikaz zegoen sagardotegira joateko. Aspaldi bat zapaldu gabea zen eta, azkenean, iritsi zen eguna. Iritsi eta irentsi. Txorizo pintxotik hasi eta azken intxaurreraino. Txotx. Trago motzak eta ilara luzeak ziren hangoak. Bat bestearen atzetik (tragoak eta ilarakoak). Trikiti soinuak sua piztu zuen eta sagardoak erregai lanak egin zituen. Hasia zen parranda. Txotx. Kuadrillako lagunekin hasitako elkarrizketak mutil eta neska ezezagunekin amaitzen zituen, eta dantza-saioak tartekatzen ziren elkarrizketa haietan. Gozatzen ari zen. Aspaldiko partez, egunerokotik ihesi, momentua biziitzen eta disfrutatzen ari zen, eta lagunekin konpartitzen, pozik. Txotx.

Sagardotegitik irten eta tabernetara pasa ziren. Kupeletik Kupelara. Kupelaren atzetik etorri ziren Sagartxo, Txiki, Ekaitz, Ikatzeta eta Bukoi. Eta horiekin batera, koloredun argiak eta reggaetoia. Kubata eskuan, taberna betetzen zutenak erritmo berean mugitzen ikusten zituen, poliki, “Despacito”. Eta inori ezer esan nahi bazion, belarrira itsatsi beharko zitzaion garrasika hitz egiteko, “Súbeme la radio”. Tabernan, aitak, semeak, amak eta alabak zeuden, neskak eta mutilak, adin desberdinekoak; eta noski, Enrique Iglesias bat baino gehiago, pausoa zuzendu ezinik hurbiltzen zitzaizkionak. Sinpatikoaren muga pasa eta astunak izatera iristen ziren, edandako alkoholak harrotuta eta entzuten ziren abestien letrak hauspotuta: “tú eres el imán y yo soy el metal”. Txotx.

Benitoren argiak piztu ziren, baina gutxi ziren gauzak argi ikusteko gauza zirenak. Lagunak agurtu eta etxerako bidea hartu zuen. Gau bat bukatu eta berria hasi zen etxerako bidean. Ordu txikitik herria handi egin zitzaion, luzeegi. Parrandan barrena jende artean igeri igarota zen, eta orain itsaso zabal ilunean arrain bakartia zen, marrazoren bat azalduko zitzaion beldur. Etxeraino zenbat pauso falta zitzaizkion kalkulatu zuen: 750. Buru-

tik parrandako anekdotak desagertzen hasi ziren eta bestelako burutazioak sortzen. Kalean, ordu horietan, neska gazte bat bakarrik, eta neska hori bera zen. Urduritzen hasi zen. San Ferminetan erasotu zuten neska oroitu zuen, eta beste hainbat aldiz ere gertatu zela hainbat herritan, eta Astigarragan ere gerta zitekeela; eta jakina, momentu horretan bertan ere bai. 600 pauso. Ez zuen kalean inor ikusten, baina itzalak nonahi, edo iruditzen behintzat. Telefonoa eskutan hartu zuen eta poltsikora eraman zuen. Eskutan ondo helduta eramateak babestu egingo zuen, eta inor hurbiltzekotan, prest izango zuen deiren bat egiteko. 450 pauso. Atzera begiratu zuen, inor ez. Egiten ari zen ibilbidea betikoa zen, baina gauzez oso ezberdin ikusten zuen. Beldurtzen hasi zen. Gerta zitekeenaren beldur zen. Ikusmira lausoa, azkartuz pausoa, helburu auzoa. Lekutan geratu zen egin berri zuen parranda. 200 pauso. Buruan defentsa pertsonaleko estrategiak irudikatzen hasi zen: potrotan ostikoa, besotik heldu, bizkarra eman eta lurrera! 100 pauso. Ibilaldi amaiezina iruditzen ari zitzaion egun argiz paseotxo bat izango litzatekeena, tentsioz betea eta mamuz inguratua. Ilune-tan itzalak. 50 pauso. Hiru atzera-begirada, giltzak eskuratu, azken pauso arinak... eta listo. Inor ez inguruan. Salbu zen, etxean. Arnasa sakon hartu eta pasatako beldurrak eragindako tentsioa askatu zuen. Zorionez, ez zen besterik gertatu. Txotx.



2

Telebistari begira zeunden, nahiz ez zinen telebista ikusten ari. Senarra kanpoan zen, egunero bezala poteoan. Lagunen aurrean bere alderdi umoretsu eta berritsua erakusten ariko zen, gero barrenak etxean husteko, eta zu, zapaldu ondoren, alfonbraren pare uzteko. Hustu beharrekoa puzten ariko zen orduantxe, globoak bezala, ardoa ardoaren atzetik, azkena azkenaren aurretik. Bazenekien gutxi falta zela bera iristeko eta beldurra zure gorputz osoan gorpuzten hasi zen. Hilabeteak zeneramatzan horrela, gau erdiro kirioak dantzan. Begi ondoko ubelduak aurreko zenbait gauetako ekaitzak salatzen zituen, baina izanak ziren itsasoa bare egondako gauak ere. Egunaren, senarraren aldaratearen eta hark edandakoaren arabera mugitzen ziren mareak eta korronteak.

Erratza hartu eta egongela errazten hasi zinen, akaso itsaso barearen bila, zaila erraz bihurtu nahian, errazten. Zentzu handirik ez zuen baina burua okupatua izateak beldurra engainatzen lagunduko zizula uste zenuen, eta zer arraio, erratzak arma gisa ere balio zezakeen ekaitza bistaratzu gero. Telebista itzali eta senarraren pauso hotsak noiz entzungo jarri zinen. Normalean ordu horretan iritsi ohi zen senarra etxera. Itsaso barea eta ekaitza txanponaren bi aldeak ziren. Txanpona erortzeaz zen, eta alde batera edo bestera eroriko zen. Baina txanponari ertza ere ikusi zenion, eta hirugarren aukera bat ere pasa zitzaizun burutik, ilunena, beltzena: heriotza. Eta izenak eta lekuak oroitu zenituen: Elvira, Blanca, Raquel, Sofia, Portugalete, Burlata, Cáceres. Haiek bezala bukatzeko beldur izan zinen une batez.

Iritsi ziren senarraren pauso hotsak, eta balantza hotsak. Eskaileretan gora lau pauso eta, bosgarrena, pareta. Beste lau eta pareta. Giltza soinuak. Zuk eskuak izerditan blai. Senarra etxean sartu zen eta erratza erori egin zitzaizun.

3

Ez zen erraza baserriko bizimodua. Lotua, neketsua eta gogorra; goizean goizetik iluntzera arteko lan etengabea. Horrela gogoratzen dut nik. Gaur, lauorgeri urteren bueltan dagoen amona izanik, distantziaz oroitzen ditut hirurogeri urte lehenagoko istorioak. Irudi lausotuak ditut, eta gero eta gutxiago dira. Bizitako sentimenduak, aldiz, bihotzean iltzatuak ditut oraindik, poz eta zorionak estali zizkidaten beldur, ezinegon eta inpotentziak; gerora sekula itxiko ez zaizkidan zau-

riak utzi zizkidatenak. Garai hartan inork ez zuen bortizkeria matxistaz hitz egiten, zer zen ere inork ez zuelako ulertuko. Neuk ere urteak igaro nituen niri gertatu zitzaidana ulertu arte, eta hitzak jartzeko gai izan arte.

Gure osabak bolada luzeak egiten zituen base-rrian. Ia ez nuen ezagutzen, gau batean bere logelara eraman, ukitu, umiliatu eta bortxatu ninduen arte. Bizitza guztiz aldatu zidan egun hartatik aurrera ez dut bakerik izan. Ez da izan gizon hura madarikatu ez dudana egunik. Lehen aldiari beste batek eman zion segida eta infernu hura baserritik alde egin nuen arte luzatu zen. Amari kontatzeko adorea bildu nuenean eta barrenean korapilaturiko hitzak eta malkoak isuri nituenean, osabaren zaplasteko batek baino min gehiago eman zidan kolpea jaso nuen: “orain badakizu zer dagoen eta hobe duzu isilik egon”. Eta halaxe egon naiz orain gutxi arte, isilik, beldurrak eta ezinegonak barrenek kiskali dizkidan bitartean.

Nire azkeneko horrekin, hiru pasadizo kontatu dizkizuet, kalabazan sartuak eta Astigarra-gako plazan atereak, baina ez dira hiru ipuin. Eta balira, beldurrezkoak lirateke. Hiru pertsonatan kontatuak, hiru emakumetan. Hiru adin desberdineko emakume eta izenik gabeko hiru anonimotasun. Gertakariei izenak eta hitzak jarri behar zaizkie, bestela ez da gertatu. Baina kontatu ez direnak ez al dira berdin gertatu? Eta beldurra? Harrigarriki hitz bakarrean deskribatzen dugun sentazio eta sentipen multzo amaiezin hori desberdina al da eraso matxista gertatu ala ez gertatu? Erasok salatu egin behar ditugu; izenak, lekuak eta hitzak jarri behar zaizkie. Baina beldurra ere salatu egin behar da, esan, kontatu. Beldur garenean uzten diogu emakume izateari. Beldurrak ito egiten du, bufanda batek egin lezakeen moduan. Baina bufanda horrek berak, adorez beldurra gainditzen dugunean, lepoa goxatuko digu, eta lepoa inguratzen utziko diogu beldurrak berriz itoko ez gaituela jakitearen konfiantzarekin. Neska gazteak telefonoa hartu zuen eskutan, zuk erratzari heldu zenion eta nik bufanda jantziko dut. Begiak lurretik altxako ditugu eta aurkitu nahi gaituenak begietara begira aurkituko gaitu. Bufanda jantzita.

Astigarragako AEK



GORKA Sagués Oskoz; prebentzioa oinarritzkoa da arbitroen lanean.

Ramon Santxez

Gorka Sagués 37 urteko astigartarra Futbol Ligako bigarren mailako arbitroa da. Honek esan nahi du Gipuzkoako arbitroen elitean dagoela Aitor Gorostegi errenteriarrarekin batera. 2. mailan dabilen arren, oroitzapenik politenak erregionalen aritzen zen garaikoak ditu, hurbiltasunagatik eta zelaiko giroagatik. Almeria eta Granadaren arteko partidatik itzultzerakoan elkartu gara Kultur Etxean, gu biok eta Peru semea.

.- Kaixo Gorka, Almeriatik bueltan, ordu asko ematen al dituzu etxetik kanpora?

Tira, batez beste partiden erdia arbitratzen dugu, eta bakar bat ere ez Euskadin, hala dugulako araututa. Bigarren mailan hogeita bi arbitro gaude, futbol taldeak adina eta hamar egun lehenago esaten digute noiz eta non arbitratu behar dugun.

.- Prestaketa fisikoa zuen kaxa egiten duzue?

Ez, prestatzaileak ditugu eta Anoetan entrenatzen dugu, astean lauzpabost aldiz, beti neurketara ahalik eta ondoen iristeko. Gainera urtean lau aldiz froga fisikoak egiten dizkigute eta udan astebeteko egonaldia egiten dugu Santanderren.

.- Eliteko kirolariaren itxura duzu...

Futbolariak bezala epaileak ere aldatu gara.

.- Zein izan da zure ibilbidea?

Futbolean Martutenen hasi nintzen lagunekin. 15 urte nituenean utzi nuen, baina aitak esan zidan kirolaren bat egin behar nuela...

... beraz aitarengatik ari zara honetan?

Bai, laneko lagun bat zuen arbitro eta hala hasi nintzen oinarritzko taldetan, gero bigarren erregionalean, lehendabizikoan, beti gustora eta maila guztietatik pasata 2. B mailara iritsi nintzen. Lau urteren ondoren 2. mailara igo intzen, baina hurrengo urtean berriro jaitsi nintzen 2. B-ra, eta bi urte ondoren 2. mailara itzuli eta bost urte daramatzat hemen. 2. mailan debutatu dudana bi aldietan gurasoak ikustera etorri dira, tarteka etortzen dira.

.- Gustatzen al zaizu lagunak zure partidatara joatea?

Ez, lagunak ez. Astigarragan bi lagunekin bizi nintzen, eta beti galdetzen zidaten non arbitratuko nuen, ikustera joateko. Nik beti berdin erantzuten nien: Beasainen, sineskeriagatik-edo nahiago izan dut ez joatea.

.- Nork erabakitzen du zein arbitro igo eta zein jaitsiko den?

Lehen aipatu dizut froga fisikoak egiten dizkigutela, eta horrezaz gain, partida guztietara arbitro ohi bat etortzen da, arbitroen batzordearentzat txostena egitera, gure lanari nota jartzen diona da. Exijentzia handia da.

.- Lehia ere bai?

Batez ere 2. mailara igotzeko. 2.B mailan 120 arbitro daude, eta bi, hiru edo lau bakarrik igotzen dira. Horregatik 2. Bira jaitsi eta berriro 2.era igo nintzenean, emaztearekin hitz egin, lana utzi, eta honi denbora osoa eskaintzea erabaki genuen.

.- Emazteari ere futbola gustatzen zaio?

Bai, bai, eta beti ezagutu nau arbitro lanetan. Etoritzen da nire partidak ikustera, orain hilabete Sa-darrera etorri zen...

.- Zure ama Arantzakoa da ezta?

Bai.

.- Ez al da halakoetan zaila inpartzial izatea?

Ez, ni profesionala naiz, hau lanbidea da eta ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. Arbitroaren kalitatea presiotik abstraitzeko duen gaitasunaren arabera da.

.- Talde baten bideoa ikusten duzunean, ez al zaitu baldintzatzen, ez al duzu aurreiritzirik egiten?

Ez, nik taldeak ezagutzeko egiten dut, prebentzio gisa. Jokalari batek bere burua maizago botatzen badu erne egoteko, edo liskarzalegoa bada aurre hartzeko. Talde batek falta asko egiten badu, lehenago moztu da. Arbitratzea prebentzioa da, egoerei aurre hartzen jakitea.

.- Futbolariekin hitz egiten duzu?

Bai, bai, gero eta gehiago, arbitratzea lan psikologikoa da, saiatzen gara jokalarien egoera emozionala ulertzen eta lasaitzen.

.- Eta bideo horietako batean arbitro baten huts egite nabarmena ikusten duzunean, neurketa baldintzatu duena, zer pentsatzen duzu?

Pentsatzen dut zer gaizki egingo duen lo gau horretan, eta hurrengoetan, batez ere oihartzun handiko neurketa bada. Partida bukatu eta ordu-betera bideoa ematen digute, eta kale egin dudala ikusten badut, behin eta berriz pentsatzen aritzen naiz zergatik hartu dudana erabaki hori.

.- Neurketa garrantzitsurik tokatu al zaizu?

Igoerako Play Offak, lehenengo mailara igotzeko partidak...

.- Momentu gogorrik?

Ez, oroitzapen onak ditut eta ikusleek jarrera ol-darkorra dutenean, jardueraren parte dela pentsatzen dut, ofizioarena. Niri oihu egiten didatenez ez naute iraintzen, arbitroa iraintzen dute.

.- Maila askotatik pasa zara, non somatu duzu aldaketarik handiena?

2. mailara iritsi nintzenean, futbola askozaz ere azkarragoa eta zehatzagoa da, askotan iruditzen zaizunaren arabera hartu behar dituzu erabakiak, ia senez.

.- Hurrengo urtean VAR sistema jarriko dute lehen mailan. Baliagarria izango da?

Jokaldi batzuetarako bai, baina jendeak uste duena baino zailagoa da. Lagungarri izan daiteke batzuetan, baina beste batzuetan arbitroak bere iritzia erabera hartu beharko ditu erabakiak. Teknologia ona berak bakarrik erabakitzen duena da, golarena, tenisekoa, baina VARa dagoenean ere jokaldi batzuetan pertsona batek hartu beharko du erabakia, eta ez da eztabaidarik faltako.

.- Ba al duzu lehenengo mailara iristeko itxaropenik?

Badakit zaila dela, urtetan aurrera goaz, eta ilusioa izan arren, gero eta zailagoa da. Lehenengo mailako epaileak, gainera, gero eta gazteago igotzen dira. Lehen 34-35 urterekin igotzen ziren, orain 28-29rekin.

.- Zarkumendegin arbitratu al duzu?

Bai, erregionaletan marrazain etorri naiz, preferente arbitro izan naiz, jubenilei ere pitatu diet. Ia urtero etortzen naiz Mundarorengana eta oso ondo hartu naute. Gertatu izan zait Mundaroren aurkako penaltia erabakitzea, baina ez dut inoiz arazorik izan.

.- Jokalariekiko harremanean, zer da zuretzat eraman zailena?

Engainua, itxura egitea. Beraiek pentsatzen dute gu engainatzen gaituztela, baina gu ez, beste taldeko jokalariek engainatzen ari dira.

Astigarragako DANTZA TALDEAK (2)

Miel Joxe Astarbe

Euskal nazionalismoa indartzen doan urteetan gaude. Euskal bandera, IKURRINA deritzaiona ere onartua dago. Errepublikaren garaian gaude, 1931. urtean.

Eta hasten dira sortzen Eusko Etxeak edo Batzokiak: EAJ-PNVren elkarteak. Eta Astigarraga ez da atzean gelditzen, bere Eusko Etxea sortzen du. Eta honekin batera, euskal kulturaren gaiak datoz Eusko Etxearen eskutik: dantza, antzerkia, abestia, txistua.

Udaleko akta municipalak eta egunkari batzuk

begiratuta, albiste ugari datorkigu Eusko Etxeako dantza taldeari buruz. Ikus ditzagun batzuk:

"Instancia del Sr. Presidente de Eusko-Etxea de esta Villa, solicitando autorización para celebrar un aurreku el pasado 8 de los corrientes, con motivo de la festividad de la Purísima Concepción, así como también solicita se les ceda el txistulari de la misma para dicho festejo "(1)

Aurrekua estimu handiko dantza da. Aurrekua, gizon dantza edo soka dantzarekin ere ezaguna dena.

EUSKO ETXEAREN DANTZA TALDEA 1931-1935

Eusko Etxearen inaugurazioan, Domingo San Sebastian (txistularia eta dantza maisua) eta Pako Almandozek prestatutako Astigarragako ezpatadantzari taldea, bere abanderatu eta amandreekin 1931ko abuztuaren 20an. (Baliteke eguna hau izatea, izan ere, Eusko Etxea egun honetan inauguratu zen eta hemen debutatu zuen.)



Partaideak. Ezkerretik hasita:

Juxto Urreaga, Joxe Ubarretxena, Saturnino Arrieta, Agustin Miner, Joxe Miner, Joxepa Antoni Miner, Teresa Ubarretxena, Maria Arrieta, Pako Almandoz, Joxe Arruabarrena, Iñaxio eta Joxe Luis Urreaga.

(Martin Ormazabalek utzitako argazkia).

EUSKO ETXEO EZIPATADANTZARIAK

Badirudi Eusko Etxekoek dantza talde bat sortua zutela. Hau da albistea:

"Eusko-Etxeko ezpatadantzariak txaloak irabazi dituzte. Pazko-meza nagusi ondoren emparantza ederrean egin zuten leenengoa. Ez nuen uste uriak orren on artuko zuenik ze batez txalotu zuten. Geroztik neska-mutil koskorrei etzaye beste eresirik entzuten: badirudite eresi oyek Matusalenen aitonak abesten zituela." (2)

Lehenengo saioa zela ere esaten du. Badakigu noiz egin zuten debuta. Ez dakiguna da ze dantza dantzatu zituzten. Ezpata dantza ez zen urruti ibiliko.

EZIPATADANTZARIEN KLASEAK

Dantzan ikasi nahi dutenentzat klaseak ematen hasi dira herriko Euskal Etxean. Hau dakar egunkariak:

"Siendo muchos los jóvenes que desean aprender la ezpatadantza, se ruega a los componentes del grupo que han actuado en Atocha a una reunión que se celebrará mañana domingo, a las tres y media de la tarde en Eusko-Etxea."

Asimismo pueden acudir a dicha reunión a dar sus nombres cuantos deseen formar parte del grupo de ezpatadantzaris. LA COMISION " (3)

Albistearen arabera, Atotxa futbol zelaian jaialdi bat izango zen eta herriko dantza taldeak parte hartu zuen. Ezpatadantza bakarrik dantzatu ote zuten ala beste dantza batzuk ere bai?

Beste albiste bat:

"Han dado comienzo las clases de ezpatadantza, para la que se han inscripto ya dos grupos."

Todos los que quieran pertenecer y aprender esta clase de danzas, pueden presentarse todos los días en Eusko-Etxea, de siete y media a ocho y media de la noche." (4)

Beste bat:

"Desde el próximo lunes y a las siete de la tarde darán comienzo en Eusko-etxea los ensayos para la formación de un grupo de hilanderas."

Todas las niñas que quieran formar parte del grupo pueden dar sus nombres en Eusko-Etxea a partir de hoy." (5)

Albisteen arabera, herrian dantza indartzen doa. Talde batzuk osatu dituzte, bai nesketan, bai mutiletan.

EUSKO ETXEO DANTZA TALDEAREN BESTE DEBUT BAT

Badirudi debut bat baino gehiago izan zituela Eusko Etxeko dantza taldeak. Jendearen aldaketen arabera izango zen noski.

"El día de San Ixidro debutó el grupo de ezpatadantza-

ris del Eusko-Etxea de esta Villa, que causó excelente efecto por su brillantísima actuación."

Los ezpatadantzaris han recibido ofrecimientos para actuar en diferentes pueblos." (6)

Urte haietan Astigarragan San Ixidro eguna handia izango zen. Kontuan hartzen badugu Astigarraga baserri giroko herri bat zela eta San Ixidro baserriarren zaindaria dela, festa giroan ospatuko zen eta Eusko Etxeko dantza taldeak egun hortan debutatzea ohore bat izango zen beraientzat.

HERRIKO DANTZARIEK USURBILGO ALARDEAN PARTE HARTU ZUTEN

Herriko dantzariak kanpora ere ateratzen dira. Lehen ikusi dugu Atotxan izan zirela. Oraingo hontan Usurbilera joan ziren EL DIA egunkariak dakarren arabera:

"Nuestros dantzaris estarán presentes en el alarde de Usurbil con motivo del aniversario de la inauguración de la Eusko-Etxea." (7)

Ezin izan dugu jakin zein dantza dantzatu zituzten.

EUSKO ETXEO DANTZA TALDEAK NAFARROAKO DANTZAK DANTZATZEN

Honela dio albistea:

"Instancia del Eusko-Etxea de esta Villa, dando cuenta de la romería que tratan de celebrar el 25 de este mes en la Plaza de los Fueros de la misma, con exhibición de bailes guipuzcoanos y navarros, y solicitando una subvención de 200 pts. para su celebración; se acuerda concederles 150pts." (8)

Eusko Etxeko dantza taldeak lehen unetik dantzatzzen zituen Gipuzkoako dantzak eta orain ikasi dituzte Nafarroako dantzak. Batzuk izango dira, noski. Zein dantza dantzatu ote zuten?

Hauek dira Eusko Etxeko dantza taldearen inguruan jaso ditugun albiste batzuk. 1931tik 1935era bitarteko ibilera. Zenbat ez ote zuten gozatu eta disfrutatu garai hartako gazte-gaztetxoek dantzatzzen. Astigarragako historiako parte bat zarete. BEJONDEIZUELA!!!

(1).- Libro de actas del Ayuntamiento de Astigarraga. (L.A.A.A.) Libro 14 1928-1931. Folio (F) 199. 10-12-1931

(2).- "El Dia" egunkaria. Astigarraga, crónica. 25-05-1932. Txadon-Zaya.

(3).- "El Dia" egunkaria. 29-04-1933.

(4).- "El Dia" egunkaria. 05-05-1933

(5).- "El Dia" egunkaria. 29-04-1933

(6).- "El Dia" egunkaria. 25-05-1933

(7).- "El Dia" egunkaria. Alarde de Usurbil. 01-09-1933

(8).- L.A.A.A. Libro 16. 1934-1937. F.63. 17-08-1935

HAINBAT GARRAIO MOTA ESKOLAN

Apirila bukaeran bisita berezi bat izan genuen eskolan. HH3ko haurrek garraioaren gaia landu genuenez ANBULANTZIA, LASTERKETAKO AUTOA eta PATINETE ELEKTRIKO bat ezagutzeko aukera izan genuen.

Ikasle baten gurasoak prest egon ziren ekintza hori aurrera eramateko. Arratsalde batean eskolako jolasokira Hernaniko DYAKo anbulantzia bat etorri zen lau langilerekin. Hauek anbulantziaren funtzionamendua eta erabilpena erakutsi zituzten, bertako material eta tresnen berri emanez. Gainera hauek moduzuzenean erabili, ukitu eta ezagutu ahal izan genituen.

Bertako teknikariekin batera sirena jo genuen, kaskoak eta eskularruak jantzi genituen, esku-ohetan etzan ginen, bozgorailutik hitz egin genuen, fonendoskopioa erabili genuen...

Ondoren basamortuan ibilitako rallytako auto bat ikusteko aukera izan genuen.

Barrutik ez da gure gurasoen autoak bezalakoa. Aurrean bi eserleku bakarrik ditu eta atzeko aldea hutsik dago, basamortuan behar diren materialak sartzeko: lo zakua, esterila, gasolina bidoiak, maletak, camping denda...

Autoak albo batean zuen hodi luze bat izan zen arreta gehien deitu ziguna. Badakizue zertarako den? Autoak ibaiak zeharkatu behar dituen motorrean ura sartu ez dadin. Autoan esertzeko eta bozina jotzeko aukera ere izan genuen.

Bukatzeko gaur egungo gizartean oso ezaguna egiten ari den garraio bide ekologikoa probatu genuen. Ba al dakizue zein den? Patinete elektrikoa. Honi esker hiri eta herrietatik modu azkarrean mugitu gaitezke, auto ilarak ekidin eta aparkatzeko arazorik izan gabe.

Patioan zehar denok bueltatxo bat emateko aukera izan genuen, hori bai, beti kaskoa jarrita.

Mila esker eskolara garraio hauek guztiak erakustera etorri ziren guztioi.



ZETARRAK

Haur Hezkuntzako 3 urteko geletara zetarrak ekarri ditugu. Beraien historia bilatu dugu eta oraintxe kontatuko dizuegu.

Duela 4000 urte Xi Ling-shi enperatriz txinatarra tea hartzen ari zen bere lorategian eta bero handia egiten zuenez, marugatze baten itzalpean jarri zen.

Halako batean, tearen barruan zerbait erori zitzaion eta ateratzen saiatu zenean, hari bat hartu zuen.

Haritik tiraka hasi zen eta hau luze-luzea eta oso fina zela ikusi zuen. Orduan pentsatu zuen: "hari honekin oso oihal fina egin dezaket!" eta horrela zeta asmatu zuten. Zetaz eginiko soinekoak oso dotoreak ziren eta oihalaren sekretua urte askotan gorde zuten.

Guk ez dugu zetazko oihalik egingo, baina zeta famatu hori nola egiten duten ikusi eta ikasi nahi izan dugu. Horregatik zetarrak gelan behatu ditugu.

Apirilean zetarren arrautzak gelara ekarri genituen eta egun gutxira zetar txiki-txikiak jaio ziren. Zetarrak kartoizko kutxa txiki batean sartu genituen masustondo hostoekin batera.

Zetar txiki hauek pila bat jaten dute eta egunetik egunera pila bat hazten dira. Hori dela eta, eskolako masustondotik astean hirutan hostoak hartzen ditugu, zetarek hosto berde eta fresko hauek jan ditzaten. Hiru edo lau astetan 6 eta 10 zentimetro bitarte hazi dira eta pixkanaka kuskuak egiten ere bai. Beraiek sortutako hariarekin ksku barruan biltzen dira eta egun batzuk pasa ondoren kuskuaren barrutik tximeletak ateratzen dira.

Ondoren tximeletak milaka arrautza erruten dituzte eta hil egiten dira, beraien bizitza zikloa bukatuta.



LAZUNENEA

Urumeako azken memoriaren suntsiketa

Josu Tellabide




Lazunenea XIX. mendearen hondarrean. Etxaurreko eranskina eta ibai-portua bidea zabaltzean desagertu ziren

Aspaldiko urteetatik dator gure ondarearen suntsiketa, batez ere, azken bospasei hamarkadetatik hona. Bestela begirada bat egin gure Urumea ibarrari, eta berehala konturatuko zarete. Dena da porlana, dena dago eraikia, etxeak, industria-poligonoak, golf-zelaia... Urumea ibarreko erribera eta mendi-hegiak txikituak gelditu dira. Berdin bota dituzte baserriak, zubiak, ibai-portuak edota txaletak... Horrela bota dute, besteak beste, Almandoz medikuaren etxe ederra. Pentsa! Donostia osoan 25 etxe-txalet besterik ez daude babesturik, Miarritzen 200 dauden bitartean. Gaizki egindako antolakuntza planak eta sortutako arazoak txikizio gehiago eraginda konpontzen dituzte, lurraren minbizia metastasia bezala hedatuz.

Kultura hitz potoloa da batzuen ahotan, baina hemen kulturak negozioa ez badakar... ez du ezertarako balio. Hemen etxe blokeak, autobideak, abiadura handiko trena, metroa, erraustegia, gero eta handiagoa, zenbat eta garestiagoa, hobe. Orduan eta handiagoa izango da gutxi batzuentzat "mokaua". Honela, zer dela eta mantenduko dute Urumean eta Donostiako udal dermio guztian gelditzen den karobi bakarra? **Doala pikutara!**

Lazunenea BASERRIA, berriz, dagoeneko eraitsi dute. Katalintxoenea eta Aingelubearen artean zegoen, erriaren eskuin ertzean, Sarroetako bide zaharra ataritik igarotzen zitzaiola. Aspaldikoa izan arren urteak joan ahala hainbat sute eta eraldaketa ezagutu zituen, eta gaurdaino iritsitako eraikinak ez zuen arkitektura aldetik balio berezirik. Eskuinean Lazunenea-Berri zuen, ezaugarri berdintsuko XX. mendearen hasierako etxea. Bertan kokatzen ziren dolare, upelategi eta sagardotegia. Sagardoa etxean bertan saltzeaz gain, Herrerako bi sagardotegitan eta Egiako beste batean saltzen zuten.

Lazuneneko KAROBIAK XIX. mendeko industriaren azken lekukoak dira Behe Urumea osoan. Maria Teresa Anabitarte (1940), Lazuneneko etxekoandreak zioenez, bere aitona karea egiten omen zuen horietan. Gero kare hori, gertuko harrobietatik ateratako harriak bezala, gabarretan garraiatzen zuten Donostiara, besteak beste, Santa Katalina zubia eraikitzeko.



Karobiak Aingelubea eta Lazunene artean



Astarbe-Galparsoro familia Ternuako St.Johns hiriko aireportuan

Herriak batu zituen bidaia

2017ko ekainaren 13 batean Mendiola baserriko kideak 450 urteren ondoren Ternuara itzuli ginen. Emozioz, urduritasunez eta, zergatik ez, adoretzuenez beteriko lurreratzea izan zen San Johns-eko aireportuan egin genuena. Izoz-mendiak ageri ziren paisaia eta garaian ez ohikoa zen haize hotzak eman ziregun ongiatorria Canadako ipar-ekialdean kokatzen den irla honetan. Ternuan ginen eta aurretik 10 egunez luzatuko zen abentura genuen.

Gorka Arizkorreta

Abentura berezi honen hasiera baina, ez zen 2017. urteko ekainean izan. Astigarragan hasi zen eta milurteko berria atea jotzen ari zen. Lourdes Odriozola Oyarbide dugu historia honen lehen protagonista eta Oñati zein Tolosako artxibo historikoak lehen eszenatokiak. Hauetan, Odriozola historialariak familia baten historia aurkitu zuen, berezia eta kasu bakanetan gertatzen den kontakizunarekin. 1563. urtetik gaur egun arte, familia berak zuzendu zuen baserri-sagar-

dotegi batekin topatu zen Odriozola. Mendiola baserria eta Astarbe, egun sagardotegia zuzentzen duen belaunaldiaren abizena. Hori gutxi ez eta emakumeak berebiziko garrantzia izan zuela aurkitu zuen, 8 kasutan sorosle izan baitzen eta hauei esker, mantendu baitzen sagardotegia nukleo familiar beraren eskuetan. Hori dela eta, Mendiola baserrian aurkitzen ditugun abizenak makina bat dira, Tafalla, Gurutzeaga, Larramendi, eta Astarbe.

Dokumentuetan miatuz beste istorio batekin topatu zen Lourdes Odriozola. Kasu honetan ere, ezaugarri bereziak izango zituen. Astigarragan bizitokia zuen pertsona baten inguruan, bi munduen batasuna aurkitu zuen gure historialariak. Tomás de Tafalla de Mendiola izena zuen eta noiz jaio edo hil zen jakin ez badakigu ere, 1565-1610 inguruan bizi izan zen. Mendiolak izango zuen bigarren belaunaldiko kidea zen Tomás, eta bere gidaritzaren ondorioz, sagardotegiak zituen lurrak Urumearen Erriberara iristen ziren eta mendi aldera lautada zabalak zituen. Sagarrondo berriak sortzeko haz-

egun genituen eta aurretik Ternuako irlari bira emateko. Egunak igaroz, sagardoaren ataripean pertsona ezberdinak ezagutzen joan ginen eta hauekin batera, kultura aitzindari eta ezberdinen berri izan genuen. Inuitak ezagutu genituen, Jaison eta Jennifer Kilabuk; Ternuako herritarren soziologia ezagutu genuen Latonia Hartery doktoreari esker, baina, baita euskal baleazaleen inguruko beste ikuspuntuak ikasi ere Iraitz Agirrerri esker. Historia guztiari izen abizenak jarri genizkion, aurpegiak, humanizatu egin genuen azken finean. Bi herrien arteko anaitzea bizi izan



Red Bay-ko badia, Izotz mendiak eta herria urrun ageri da. San Juan baleontziak argazkiaren eskuineko aldean ondoraturik jarraitzen du.

tegi bat ere bazuen eta urtero, txertaketa eta landaketa berriak egin ohi zituzten. Hala ere, Tafallaren berezitasuna ez zen Mendiolako baserritar bat izatea, lanbidez marinela zen eta besteak beste, Gipuzkoako Eskuadraren parte hartu zuen birritan Juan Martínez de Recalde zein Urdaneta almiranteen agindupean. Garaian ohikoa zen bezala, gure Tomásék euskal baleazaleen eskifaietan ere parte hartu zuen, esate baterako, 1596. urtean. Gertaera honek egiten du berezi historia hau, izan ere, Astigarragan topatzen dugu mundu marinela eta baserritarra batzen dituen herritarra.

Gure historiako hurrengo protagonistak ezagunagoak zaizkigu. Astarbetarrak izan dira 1823. urtetik Mendiolan egon direnak eta Agurtzane, Kizkitza, Joseba eta Hur, udaberriko azken egun horretan Ternuako St. Johns hiria zapaldu zuten 15. belaunaldiko kideak. Hauekin batera, Iker eta Gorka ere joan ziren, Astigarragak eta gure herriko produktua den sagardoak izango zuen delegazioa osatuz. Ternuako hiriburua ezagutzen hasi ginenerako Ocean Endeavour itsasontzian ontziratu eta gure erronkari ekin genion, 9

genuen, Plentzia (EUS) eta Placentiaren (NF) artean eta XVI. mendean bezala, euskal marineloek gure herriko janari, sagardo eta opariak partekatu genituen Red Bay herriko biztanleekin.



Hur Astarbe (esk) Astigarragako herritarren oparia Wanita Stone (ezk) Red Bay-ko alkatesari ematen.

ASTIGARRAGAKO SUSTRAIAK


*Urteak gero eta azkarrago
doaz.*

*Urtaroek orduen abiadura
hartzen dute.*

*Santiomendi eta Murgiako
basoak etxetik ikusten ditut
jantziz aldatzen etengabe.*

*Baina zuhaitz horien sustraiek,
harkaitzak dirudite.*

*Leihotik begira naizela
ohartzen naiz: bertan dira
Santiomendi eta Murgiako
harriak guri so, guri esaten,
Astigarragako sustraiak han
direla.*



Urkiri Salaberria

Askotan, hausnarketarako denbora hartzen dudanean ez dakit kapaza izango naizen osorik (arima, gorputza eta adimena) iristeko nire bizitzaren azken uneetara “likidoa” deitzen dioten gure gizartean. Burua hegan dudala gogoan izaten dut askotan entzun eta errepikatzen dudana esaera:

“Munduko edozein haurri honako bi opari eskaini behar dizkiogu: erroak eta hegoak”.

Erroak eta Hegoak, Des racines et des ailes, Raíces y Alas, Roots and Wings...

Raíces para comprender quiénes somos, Alas para poder ir hasta donde nuestra imaginación y deseo nos lleve.

Llevo años escribiendo sobre temas de identidad, sobre quiénes somos, quiénes queremos ser, cómo somos, qué somos, dónde podemos ser, cómo podemos ser.... Allá por 2013 en esta misma revista hablaba sobre la capacidad de triplicar la población que tenía Astigarraga en el S. XIX, cuando acogía las tropas militares en las campañas Napoleónicas, tenía una estructura preparada para eso, también hablaba sobre la visión de nuestro pueblo que tenían los viajeros románticos que llegaban a nuestras fondas y posadas, incluso participé en la

idea y puesta en escena del prelude de aquel año, que tuvo ese tema como hilo conductor. Parece ser que en mis artículos no dejo de preguntarme qué es ser vasco, qué es ser astiartarra, la noción de territorio como suelo más identidad, la noción de Astigarraga.

Está claro: Astigarraga ha sido, es y será un pueblo con su propia identidad. Pero su configuración e identidad irán cambiando sin dejar de ser Astigarraga. Astigarraga crece y se modifica porque quienes habitamos en ella vamos cambiando. Nuevas tecnologías, nuevas prioridades, nuevas maneras de entender el hogar y la familia, nuevas necesidades que influyen en nuestra manera de vivir, de estar, de movernos... vamos cambiando y con ello nuestro entorno, nuestro paisaje. Astigarraga se elevará sobre la realidad de sus materiales. El cemento, el acero, la madera, el cristal en convivencia con bosques, huertas ecológicas, parques fluviales, edificios milenarios y monumentos centenarios construirán su nuevo perfil. Pero Astigarraga va más allá. Astigarraga crea una identidad intangible, inmaterial que traspasará los tiempos y se ubicará en un espacio que podemos definir a través de materia simbólica. Un espacio que recrearemos en una nueva acción: Astigarragako Sustraiak.

AUKA JOKOA:

Astigarragako Sustraien euskarria.

Urueñara joan nintzen eta bertan “Bizitzaren jokua” eta “Oca” ala “Auka” jokoak ezagutu nituen Joaquín Díaz berak erakutsita. Hortik sortu zen ideia:

Construir un juego en continua construcción donde Aire, Madera, Piedra, Tierra, Agua y Fuego sean los materiales simbólicos con los que construir y reconstruir la identidad de nuestro pueblo.



Egurra
Basoak, sagastiak, tolaiek,
kupelak...



Haizea
Alde espiritualak, Donejakue
bidea, dantzak, ahozko
hizkuntza, musika...



Harria
Historia idatzia, jauregiak,
megalitoak, eskultura, zubiak,
baserriak, eraikinak...



Lurra
Jakiak eta jakinduria, sagarrak,
ilarak, baratzak,
emankortasuna, abegitasuna...



Sua
Indarra, industria, sormena,
gastronomia, sagardoa...



Ura
Ekologia, iturriak, ibaiak, latsagiak
(lavadero), uharka (aljibeak)...

Astigarragako Sustraiak:

Ezagutu, ulertu, barneratu, maitatu, babestu, zabaldu. Conocer, comprender, interiorizar, amar, proteger, divulgar. Erroak eta hegoak.



Mikel Lertxundi

eskultore emankorra

Astigarragako GOLDEA Herri Kirol Batzordeak eskatuta, herriko “baserritar kuttunak” omentzeko artelana sortu zuen Mikel Lertxundi eskultoreak 1994an. Orain “baserri biziari” merezitako esker ona erakusteko eskultura sortu du, lehen aldiz 2018an eman zaiona Lizardi baserriari, San Isidro egunean.



- Haurtzaroan bere jostailuak egiten jolasten zuen, inguruan aurkitzen zituen egurrekin, kartoiekin... eta jolaserako antzezlekuak eraikitzen, baserriko soro eta basoetan bereizitako buztinarekin.

- Artista izatearekin egiten zuen amets, eta hamaika urte besterik ez zituela “nola bizi artetik” galderak kezkatzen zuen.

- 1972an artearen eremuan murgildu zen eta bere ametsa egia bihurtzen hasi zen.

- 1974an lehen erakusketa egin zuen.

- 1980an Parisera bidaiatu zuen Bizkaiko Aurrezki Kutxak emandako arte plastikoetako sorkuntza eta ikerketa bekarekin.

Arte ibilbidean hasi eta urte gutxira bere bide propioa ireki zuen harria, egurra eta burdinaren elkarketa oinarri duena: bere sortzaile eta ikertzaile espirituaren indar eragile eta lenguaia edo espresibide bihurtu dena eta, azken urteetan, ura, airea eta sua elementuekin lagunduta heltzen ari zaiona ikusleari.

1988an bere pentsamendu eta obrari buruzko “Lertxundi, euskaradun arte unibertsala” saiakera-liburua idatzi eta argitaratu zuen, 1989an argitalpen onenaren Euskadi saria irabazi zuena.

Arte azoka garrantzitsuetan erakutsi ditu bere lanak, hala nola, ARCO (Madrid), FIA (Caracas), ART MIAMI (Miami), NICA (Yokohama) eta KIAF (Seul) eta estatuko eta atzerriko hainbat museo eta galeriatan Bilbon, Donostian, Iruñean, Baionan, Gasteizen, Madrilen, Zaragozan, Valentzian, Salt Lake Cityn, Renon, San Franciscan, Chicagon, Stuttgarten, Colonian, Pforzheimen eta Karlsruhe, besteak beste.

Neurri handiko eskulturen erakusketak ere egin izan ditu aire zabalean, Ziortzako monastegian 2006an, eta Güeñesko Arenatzarte parkean 2009an. Hainbat herri eta hiritan ikus daitezke haren neurri handiko eskulturak. Batzuk aipatzeko, Ondarroan, Berriatuan, Zarautzen, Amorebietan, Elorrión, Berrizen, Durangon, Markinan, Güeñesen, Donamartirin, Biarritzen, Comillasen, Soplaon, Florentzian, Renon edota Ingalaterran.

2018an Donibane Lohitzunen eta Holandan erakutsiko ditu bere artelanak eta 2019an Bilboko Rekalde Aretoan bere eskultore ibilbideko lanik esanguratsuenekin egingo duen erakusketa handia eta liburua prestatzen ari da.

Informazio gehiago: www.lertxundi.eu

**Eskulturaren fitxa:**

Izenburua: Izenbururik gabea

Teknika: Harria, egurra, burdina

Neurriak: 26 x 18 x 17 cm

Urtea: 2017

Egilea: Mikel Lertxundi eskultorea

AZALPEN LABURRA

Mikel Lertxundiren eskulturgintzaren ezaugarri diren hiru materialekin egin dago: harriarekin, egurrarekin eta burdinarekin. Material bakoitzak berezko izaera gordetzen du eta esanahi berezia ematen dio eskulturari. Honela, harriak oinarria jartzen du, tente, paisaian berezkoak zaizkion ertz zuzen eta forma piramidalekin bi paretako irudia erakitzen du, mendiaren, herriaren eta, zehatzago, baserriaren sinbolo bilakatuz. Harrizko pieza honek zulagune bana du hormetako alde bakoitzean, bata behealdean eta bestea goialdean. Zulagunetik zulagunera burdinak eta egurrak elkar hartuta beso edota tresna bat gogorarazten duen elementu dinamikoa eta orekatua osatzen dute, bizitasunaren mugimendua iradokiz, barruranzko lotura eta kanporanzko irekiera erakutsiz.

Eskultura honek baserriaren istorioa laburbiltzen du: oinarri tinko batean (harria) egin-dako lan sendoak (burdina) biribiltzen duen emaitza bizia (egurra). Eskultura honek baserriaren esentzia omentzen du forma soil eta irmoekin. Eskultura honek baserri biziaren taupadak transmititzen ditu, isilik baina indartsu.

HERRI BIZITZAZ 2018

LANDAREAK LANTZEN



Liburuaren aurkezpena joan den irailaren 20an, Jakobak eta Anttonek liburuaren aurreneko aurkezpena egin zuten, Astigarragako udaletxean. Bertan urte saioen azalpenak, lanak eta abar luzea biltzen dira.

MUSIKA ESKOLA



Urtero bezala, **Norberto Almandoz Musika Eskolak** ikasturte amaierako emanaldiez gozatzeko aukera izan genuen ekainaren 15 eta 16an. Kalejira eta kontzertu ugari, urtean zehar egindako lanaren erakusgarri.

OLATZ ARRIETA



Olatz Arrieta kazetari astigartarrak irabazi du EuroBasqueren, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren, 2017ko Kazetaritza Saria, “*Euro-pa, lehen ehun egunen ezinegona*” artikuluekin. Berriak, Elkarrek eta Jakinek 2017an atera zuten “*Trump Amesgaizto Amerikarra*” liburuan argitaratu zen lana. Olatz aldizkariko lantaldeko kide izan genuen hainbat urtez. **Zorionak Olatz!**

OIALUME



Oialume dantzalekuak 75.urteurrena ospatzeko jaialdia antolatu zuten, joan den maiatzaren 26an, larunbatean. Bertan, 60ko hamarkadako artistekin: Axintxio, Kanario, Altuna... aritu ziren musikaz eta dantzaz. Ondoren kontzertua izan zen eta Anje Duhaldek eta Gozategik hartu zuten parte.



Astigarragako Udala

Tximela ^S_A



www.tximela.com



kutxabank

